

K...eta!
Kitto!

2016-VII-22

982 zkia.

Etxetik gertu ere badira oporrak



KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA

ZERBITZUA

KUDEAKETA

ADMINISTRAZIOA

30 urtetik gorako esperientzia

943 200 358

ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE



JENDEA HARTZEKO
(aurrez-aurre eta telefonoz)
09:00-14:00 / 15:30-19:30

Osasun gida

Dentistak

arat
Hortz-Klinika

ARRETA-ZERBITZU INTEGRALA

Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa...

Clinicas dentales **UniverSalud**

TORIBIO ETXEBARRIA, 4 - 1. esk. Telf: 943 20 18 51

RPS 04/02

IRAZABAL
clínica dental

Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

RPS: 53/13

bista eder
clínica dental - hortz klinika

Asko dira
gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak

20.000tik GORA PAZIENTE
ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

Bista Eder, 19 943 70 00 82

hortz-klinika
B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

EIBAR HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4 behea ezk. info@eibarclinicadental.com
943 537 076 - 688 884 808 www.eibarclinicadental.com

invisalign
Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia ume eta helduentzat

M^a Dolores Olaizola Doktorea
RPS 195/11

EIBARKO ZENTRO MEDIKOA

Urkitzu, 13 (Orbeako Dorreak)
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706
www.mariadoloresolaizola.com

Pedro Etxebarria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

GASTESI
Hortz-Klinika
Ane Gastesi

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10 - 2. eskuma 943 70 00 90

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA



- * Fisioterapia / Errekuiperaketa funtzionala
- * Min-Unitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

Estetika klinika

abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

KIRURGIA ESTETIKOA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

Fisioterapeutak

ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.

ARRAGUETA, 20
Tlf.: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

FISIOTERAPIA ZENTRUA

Ginekologoak

M^a Jose Ruiz de Porres
DOKTOREA

- Bularren azterketa
- Minbiziaren azterketa prebentiboa
- Zitologia
- Baginako eta sabelaldeko ekografia
- Mamografiak
- Bularretako ekografia
- Nerabeentzako arreta
- Menopausiadunentzako arreta
- Dentsitometriak
- Haurdunaldiaren kontrola
- Kontrazepzioa

T. Etxebarria, 4 - 1. ezk. 943 20 28 57

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Jose Luis Gorostegi, Silbia
Hernandez, Uxue Igarza
eta Haizea Arizaga.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:
Leire Iturbe eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:
Ana Aizpurua

BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.100 ale.

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA (HIZKUNTZA
POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

eskutitzak

Pelukerixako kontua

"Ave de paso, eskopetaso" pentsauko zeban seguru asko pelukeriak. Edo "ni ez naiz Hollanderen pelukerua baiño gitxiago". Pelukerixako kontuak txikikeriak dirala uste dabe batzuk, baiña pelukerixan be politikia egitten da. Eta egun horretako pelukerixako kontua astronomikua izan zan: 149 euro. Larkerixia, abusua...

"Zu ez zara Eibarkua, ezta?", esan zestan pelukeriak. "Eibarkua naiz, bai, baiña Bilbon bizi naiz", erantzun neban nik. Eta hori hankasartze haundixa izan zan, itxuria. Izan be, bixamonik egongo ez balitz bezala, pelukerixan eguazen kosmetiko guztiak ulian igurtzi edo saldu nahixan ibilli ziran hango pelukerak. Eta beti be ia holakorik nahi neban neuri preguntau barik, eta hórrek potingek eta kremok zenbat balixo eben be esan barik. Susmua dakat, gaiñera, hango klientak ez dabezela ixa 150 euro pagauko ulia moztu eta tintatziagaittik (bueno, neri flekillua be lisatu zesten), hori aguantatzen daben soldatarik ez dago-eta.

Kanpotarrari tratu diferentia emotia politikia da eta etika gitxi adierazten dau.

Hollanderen pelukerua baiño gitxiago ez dira Untzagako torreko pelukerak, baiña hara doian klienta barrixak aukera gitxi daka Frantziako presidentiaren soldatiaren parekua kobratzeko. Aukera gehixago daka, barriz, soldata prekarixua jasotzeko. Hillian 600 eta 800 euro artian irabazten dabenak asko dira eta hórrendako 149 euroko ezustia bardintziak hillebete bat baiño gehixago bihar dau. Ez dot esan nahi horren arabera kobrau behar dabenik pelukerixan, baiña kanpotarrari gehixago kobratzia ez da zuzena.

Famelixa kontuengaittik sarritan bueltauko naiz Eibarrera; baiña, pelukerixara juateko preminia badakat be, ez naiz pelukerixa horretara bueltauko. Ez ni ez nere famelixako iñor. Izan be, eskubide eta aukera bardintsunaren alde egin dot burrukan beti, eta pelukerixako kontuak ez desta politika hori aldatuko.

Beatriz Azpiri Rementeria

- erredakzioaren oharra -

Esku artean duzuen da ikasturteko azken alea.

Hurrengo irailaren 6an, martitzenean, kaleratuko dugu, Arrateak baino lehen. Bitartean, aprobeztatu eta ondo pasa.

Erredakzioa

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

LAREN.- Laurden. "Bildotsan larena izan dogu gaurko bazkarixa".

LARRAPASTADA.- Labankada. "Larrapastadia egin izotzetan eta luze jausi da".

LARRAPAST EGIN.- Laban egin. "Larrapast egin, aho zabal jausi, eta goiko paleta bi apurtu zittuan".

astean esanak

"Niri, nahiz eta ez gustatu, lasaitasuna ematen dit jendez gainezka dagoen hondartza batek. Eta, aldiz, egonezina sortzen dit jakiteak milioika pertsona dabilela hor zehar mugikorrarekin Pokemon izeneko pertsonaia birtualak ehizatzen. Ezjakintasuna izango da. Probatu ez dudala, beharbada. Akaso hasi beharko nuke itsasoko jolasak utzi eta pertsonaia birtualak ehizatzen. Baliteke hor lasaitasunik ez aurkitzea, uste dudana baino gehiago gustatzea. Edo alderantzizkoa: lasaitasunik ematen ez duten gauzak gustukoak izatea"

(JASONE OSORO, IDAZLEA)

"Jarrera hipokrita erakusten dute tximino handi eta antzeko animaliak ezin direla gatibu hazi diotenen, aldi berean ardura ez dielako oso adimentsuak diren loro espezie batzuek. Egia da zoo batzuk latzak direla, baina beste asko ezinbestekoak dira espezieak ez desagertzeko eta gatibutasunean ugaltzeko. Durrell-eko zooak bere 60 urtetan espezie asko barneratu ditu berriro naturan, tartean urre-koloreko tamarino lehoi tximinoa, Maurizioko uso arrosa, Rodrigues-eko saguzarra... Gure zooko izakien %90 dago arriskuan. Europako karioletan daudenen %0,23 dago kasu berean"

(GALE GLENDEVAR, NATURALISTA)

"Greenpeace salatu berri dute 109 Nobel saridunek erakundea transgenikoen aurka dagoelako, gutun berean arroz horia, genetikoki eraldatua, defendituz. Are gogorrago, gizateriaren aurkako krimena egiten ari dela idatzi dute. Baina gai nagusia ez da genetikoki eraldatuak diren jakiak: gai nagusia gosea da. Nobel saridun horiek ez dute gosea salatu, ez diote aurre egin arazoaren sorburuari. Sinatzaile jakintsu horiek ez diote kausari aurre egin eta sintomak mugatzeko estrategiari jarraitu diote. Nondik lortuko dituzte nekazariak arroz berriaren haziak erosteko sosa?"

(FERMIN LAZKANO, EKONOMIA IRAKASLEA)



BORJA RODRIGUEZ

Konfidantza galtzen

Bizitzaren sentzua zein ote den askotan galdetu izan diot nere buruari. Ez dut aurkitu, ez pentsa... Baina gauza bat oso argi daukat aspalditik. Inori min egiteko ez naizela etorri mundu honetara. Gaur egun, errefuxiatuen istorio tristea, eta hainbeste atentatu munduan zehar, munduarengan konfidantza galera erakarri dit. Ez dut etorkizunik ikusten. Hainbat, guda, hainbat mende eta hainbat esperientzia ondoren, denak berdin jarraitzen du. Erljio baten izenenan hiltzen jarraitzen da, pertsonak ez dute urrezko txanpon bat baino gehiago balio, eta eredu feudal batean bizi gara berriz, nahiz eta beste hainbat hitzen atzean mozorrotuta egon. Hau ez da nik nahi dudana mundua. Beste mundu bat posible dela pentsatu nahi dut, hitzak metralletak baino indartsuagoak direla, eta maitasunak salbatuko gaituela. John Lennonek ere horrela uste zuen Imagine idazterakoan, baina bera ere begira nola bukatu zuen... Ez, ez dago zeregin askorik zoritxarrez.

Kooperera Store denda barrixa

Hillaren 12xaz geroztik irabazi asmorik ez dakan Kooperera Store dendia dago zabalik Zuloagata-
rren kalia, Arrate Kultur Elkartearen aldamenian. Caritasen laguntasuna dakan proiektuari esker bate-tik modako erropia merke eroste-ko aukeria eskintzen dabe eta, bes-tetik, gizarteratzeko arazuak dit-tuenendako lana sortzen dabe. Gaiñera, birziklapen eta berrerabi-llera kontuetan eredu billakatu di-ra: Gipuzkoan 2001. urtian erropak, liburuak eta jostailuak batzeco le-hen kontenedoria kalia ipiñi ebe-netik gaur arte 25.300 tona birziklatu eta berrerabiltzia lortu dabe. Izan be, izaera soziala dakan proiektuari esker, kalia daguazten kontenedoretan jasotzen dittuen erropak sailkatu eta, era-biltzeko moduan daguaztenak dendetan salgai ipintzeko preparatzen dittue.



Dendia hillaren 12xan inaugurau zeben.

asteko
258.800
 datua

euro bideratu dittu udalak "Umeak eskolara" eta "Dirulaguntzak Ikasleei" programetarako eta horri esker 2016/17 ikasturtian be ikasle bakotzak 61'10 euro jasotzeko aukeria izango dau.

Jeltzaliak auzuetara bisitan

Eibarko EAJ-PNV udal taldiak herritarren proposamenak jasotzeko 2014an abiatu eban

"Lagundu Eibar Hobetzen" ekimenari heldu detsa barrero eta, horri jarraituta, herriko hainbat

auzotara bisitan juango dirala emon dabe aditzera: "Aurreko asteko eguaztenian Saratsuegin egon giñan, aste honetan Jardinetan eta datorren astian, barriz, Ego Gaiñera juateko asmua dakagu". Ekimenaren harira 2014an 150 proposamen baino gehixago jaso zittuen. Nahi daben herritar-
 reri euren proposamenak helarazteko aukeria eskintzeko, datorren asteko eguaztenian karpa ipiñiko dabe Ego gaiñen (Batzoki parian), 19:00etan. Bestalde, herritarrekin kontaktu zuzena izateko beste bide batzuk be badi-ttuela ekarri nahi dabe gogora, adibidez eajpnveibar@gmail.com helbidera idatzitta.





Kiroldegi aldameneko lurretan eskabadoria sartu dabe oingo astian.

Obra gitxi aurtengo udan

Beste batzuetan baiño obra gitxiago eukiko dittugu herrixan aurtengo udan. Udaltzain-guan aurreikusitta dakenaren arabera, aurtan ez dabe asfaltatze-lanik egingo abuztuan, urri-rako laga dittue-eta. Eta hortik kanpora egingo diran konponketa-biharrek be gitxi izango dira: Urkizun ur-zerbitzukuak egitten hasitta duguazanak (Fausto taberna parian), Otaolan Mercadona eraikitze biharrek, Toribio Etxebarria kalia, El Corte Inglesa egon zan tokixan Stradivarius denda barrixa zabaltzeko lanak eta Errebalen hasitta duguazan biharrek.

Parrilla barrixak Arrate eta Elgetarako parkietan

Udaleko Zerbitzu saillak ixa 12.000 euroko inbersiñua egin dau Arraten eta Elgetarako errepidian duguazan parkietan parrilla barrixak ipintzeko: Arraten duguazan 10 erretegixak barriziarren 9.850 euro pagauko dittue eta Elgetarako bidian, parkietan duguazan beste hirurak

kanbixatziarren, barriz, 2.140 euro. Urtiak jua urtiak etorri, toki bixetako erretegixak hondatzen jua dirala ikusitta, barrixak ipintzia erabagi dabe. Egokixenak zeintzuk ziran aurreko astian erabagi eta jarraixan ekin zetsen Ulmar enpresakuak parrilla barrixak ipintziari.



Udako merkealdi azokia

Gaur illuntzera arte egongo da zabalik "Factoring" udako merkealdixen azoka berezixa Toribio Etxebarria kalia. Eibar Merkataritza Gune Irekixaren eskutik antolatzen daben azokia eguaztenian zabaldu eben eta, martxan egongo dan hiru egunetan, era guztietako produktuak merke-merke erosteko aukeria emongo dabe.

autuan


EZOHIKO PLENUA

Uztaillaren 14ko plenuan 2015eko Kontu Orokorra eta Udal Inbentariñua onartzeko proposamena onartu zittuen. Kasu bixetan, botaziñuan PSE-EEko 10 kidiek aldeko botua emon eben eta gaiñontzeko udal taldiak (EH Bildu, EAJ-PNV eta Irabazi) abstenidu egin ziran.



1958-KUEN BAZKARIXA

1958xan jaixotakuak urriaren 22xan batuko dira Azittaiñen alkarrekin bazkaltzeko. Juan nahi dabenak 80 euro sartu biharko dittu Kutxabankeko 2095 5035 00 9116200099 kontu zenbakixan, izen abizenak ipiñitta.

IDURRE
IRIONDO

Toribio Etxebarria sarixetarako finalistak

Datorren asteko eguenian, uztaillaren 28xan emongo dittuen Toribio Etxebarria sarixen epaimahaixak aurtengo ediziñorako hamar proiektu finalistak aukeratu ditu. Enpresa Ideiak/Proiektuak ataleko finalistak "Simple-neb", "Gogoa Mobility Robots", "3R Labs", "BioNC" eta "WimbiTek" dira eta Enpresa Barririk atalekuak "Tumaker", "Countercraft", "I+Med", "Prospero Biosciences" eta "Vi4 Crane". Sarixen 26. ediziñoko sari banaketa ekitaldixa goizeko 11:00etan hasiko da, IK4-TEKNIKERen egoitzan, eta Markel Olano Gipuzkoako Diputatu Nagusixak, Arantxa Tapia Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuak eta Miguel de los Toyos alkatiak parte hartzia dago aurreikusitta.



Enplegu Anezken arteko topaketia

Gaztieri biharra topatzen laguntzeko asmuari jarraitzen detsen Gipuzkoako Enplegu Anezken arteko topaketia inaugurau eben eguaztenian. Debabarrena eta Oarsoaldeako Enplegu Anezkak apirilaren 18xan ipiñi zittuen martxan, Santa Maria la Real fundaziñuak, Telefonica fundaziñuak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatuta, "gaztien langabezixari aurre egitteko estrategixa barri gisa". Ekimenak Debegesa eta Oarsoaldea garapen agentzien lan-kidetza eta Europako Gizarte Funtsaren laguntasun ekonomikua dakaz eta, ekitaldixaren harira batutakuen artian, bestiak beste, Garikoitz Agote (Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza Zuzendarixa), Juan Angel Balbas (Debege-

sako zuzendari nagusixa), Fernando Nebreda (Oarsoaldeko zuzendari nagusixa), Matias Figueo (Telefonica fundaziñoko Enplegarritasun Programetako arduraduna) eta Soraya de las Sias (Santa Maria la Real fundaziñoko komunikaziño arduraduna) izan ziran.

Anezkak abiatu zittuela hiru hillebete bete dirala eta, bixetan parte hartzen ari diran gaztiak Eibarren, Debegesaren egoitzan alkartu ziran, euren esperientziaren barri alkarri emoteko asmuarekin eta, bide batez, ekimen barrixaren inguruko baloraziñua egin dabe arduradunak. Esandakuaren arabera, 18 gaztek sektore diferentietan biharra topau dabe eta, beraz, pozik dagoz emaitzarekin.

Eibar-Arrate autobus zerbitzua

Euskotrenek ekaiñaz gerotik Eibar-Arrate autobus zerbitzua udako ordutegira moldatuta eskintzen dihardu. As-telehenetik barixakura bittartian, lanegunetan, ondorengo zerbitzuak eskinduko dira: Eibar-Arrate, urteeria Urkizutik, 15:00etan; eta Arrate-Eibar, urteeria Arratetik, 15:30xetan. Zerbitzu hñek, udan zihar zapatu, domeka eta jaiegunetan betiko moduan eskintzen diraneri gehitzen jakue. Zapatuetan Eibar-Arrate autobusaren urteeria Urkizutik 14:00xetan izango da eta Arrate-Eibar, barriz, 14:30xetan. Eta domeka eta jaiegunetako urteera orduak hñek dira: Eibar-Arrate, Urkizutik, 09:00, 10:00, 11:00, 13:00 eta 18:00etan; eta Arrate-Eibar, 09:30, 10:30, 11:30, 13:30 eta 18:30xetan.

Opor sasoiaren kalean abandonatzen diren txakurren kopuruak gora egiten du. Gezurra badirudi ere, uda iristen denean, bapatean txakurrek "traba" egiten diete jabe batzuei eta kalean, mendian edo bide ertzean lagatzea erabakitzen dute. Dena dela, urte guztian gertatzen da arazoa hori. Guzti honen alde positiboa da Euskal Herrian eta estatu mailan txakurren eta, orohar, animalia guztien eskubideen alde lan egiten duten gero eta talde gehiago dagoela. Debabarrenean "Marcan Huella" elkarteak kalean bakarrik lagatzen diren txakurrentzat etxe bat topatzen lan egiten du. 2014an sortu zenetik elkarteak 150 txakur inguru jaso ditu. Edozein lekutan gaudela, txakur bat aurkitzen baldin badugu zelan jokatu behar dugun azaldu digute.



Zelan jokatu kalean bakarrik dauden txakurrekin

Txakurra kalean abandonatuta lagatzea merke ateratzen da. Gaur egun zigor administratiboa 300 eurokoa da, "eta hau aterpetxe batean edo erresidentzia batean lagatzea baino merkeagoa da", azaldu digu "Marcan Huella"eko Nerea Pulidok. Txipa da txakurra identifikatzeko dagoen sistema; hor agertzen dira animalia-aren datu guztiak. Askotan txipa kentzeko jabeak laban batekin egindako zauriarekin agertzen da txakurra, "horrela ezingo da txakurra identifikatu eta zigorra saihestuko dute". Bizi dugun krisialdi ekonomikoa da txakurrak abandonatzearen arrazoietakoa bat "azken finean, txakurra ondo zainduta edukitzeko dirua gastatu egin behar da". Beste batzutan, arazo pertsonalak izaten dira, eta sarritan gertatzen da ehiztariek, txakurrak behar ez dituztenean, alde batera lagatzen dituztela.

Zer egin behar dugu txakur bat galduta aurkitzen badugu? Albaitariarengana eramaten badugu, txipa baldin badauka, jabea identifikatu eta telefonoz deitu ahal izango zaio. Kasu askotan ihes egin dute eta jabeak bihotzez eskertzen dute deia. Dena dela, gerta daiteke jabeak telefonoa ez hartzea edo zuzenean ez duela ezer jakin nahi erantzutea. Egin dezakegun beste gauza bat, "Marcan Huella" bezalako elkarte batekin

harremanetan jartzea da. Txakurren babesarako elkarte asko dago gaur egun, eta, edozein lekutan egonda ere, erreza da, esate baterako, Facebookaren bitartez, elkarte batekin harremanetan jartzea. "Gauetan aurkitzen badugu, udaltzainei deitu ahal zaie, baina, kasu hauetan, jabea ez badute aurkitzen udal txakurtegiaren amaitzen dute", azaldu digu Nereak.

"Marcan Huella"k, gaur egun, ez dauka animalia-identifikazio aterpetzerik. "Horregatik, adopzioa lortu arte, harrera-etxeekin lan egiten dugu. Harrera-etxeetan aldi baterako izaten ditugu eta gastu guztiak elkarteak ordaintzen ditu, txakurren esterilizazioa barne. Etxeak berotasuna, goxotasuna eskaintzen du. Harrera etxerik ez dakagunean erresidentzietara eramaten ditugu. Euskal Herrian erresidentzia asko daude eta kasu horietan ere, etxe berri bat aurkitu arte, gastuak elkarteak ordaintzen ditu. Gure helburua da kaleko txakurrak jasotzea, eta ez partikularrak, baina batzutan jabe batzuk gurekin harremanetan jartzen dira txakurra ezin dutelako atenditu. Kasua ondo aztertu ondoren, batzutan geure gain hartzen dugu ardua. Oso kasu konkretuak izaten dira".

"Marcan Huella" elkarteak 80 bazkide inguru ditu eta 20-30 boluntario inguru dabil-

"Ez du ezer eskatzen eta dena ematen du"

"Freddy" oso egoera kaskarrean iritsi zen elkartera. 3 hilabete egin zituen harrera-etxe batean eta ondoren Ermuko familia batek adoptatu zuen. Meritxel Sanz eta bere familiarentzako (Vicen senarra eta Jugatx eta Unai seme-alabak) Freddy ez da maskota bat, familiarikoa beste kide bat baino.

Adoptatu ahal izateko formulario bat bete behar izan zuten eta bideoen bitartez ezagutu zuten Freddy. "Familiarik baldintza batzuk bete behar ditu. Izugarria da etxera heltzean nola hartzen gaituen. Freddyk ez du ezer eskatzen eta dena ematen digu. Poz handia ematen digu".

www.facebook.com/MarcanHuella

tza aktiboki lanean. Urtean zehar hainbat ekimen egiten dituzte: txakurkrosa, mendi martxak, material salmenta, gala benefikoa, haurrentzako heziketa-saioak... Guztiak elkartearen ezagutzera emateko eta horietako batzuk dirua batzeko eta, modu horretan, txakurrei laguntzen jarraitu ahal izateko. Herriarrek gero eta elkartasun handiago erakusten dutela esan digu Nereak.

Baimendutako Harategia
Gure Kalitatea

Giokela
Carniceria Autorizada

MUGIKÀ
Urkizu, 18
943120194

HARATEGIA

Abuztuan goizez zabalik

moda



arkitektura

mikel solas -MODA DISEINATZAILEA-

Modak ez du atsedetik hartzen

Orain dela aste batzuk Goi mailako Joskintza Astea ospatu da Parisen. Bertan modako etxerik onenek euren kolekzioak erakusten dituzte. Chanelek, esaterako, desfilea aurkeztu zuen Rue Camboneko atelierra bihurtutako Gran Palais-en. Bertan, "les petites mains" delakoek denbora errealean lan egiten zuten modelook josteko



maikina, maniki eta patronaje-mahaien artean desfilatzen zuten bitartean. Desfilea amaitzerakoan, ohikoa den bezala, Karl Lagerfeld "kaiserra" irten zen eta oriangoa lau jostunekin desfilatu zuen, modu honetan emakume hauei garrantzia emanez eta berak diseinatutako jantzien atzean dagoen lana aitortuz. Karl Lagerfeldek zuzentzen duen beste marka bat Fendi da, eta hau Erromako Fontana di Trevin aurkeztu zuen. Modeloek ur gainean jarritako pasarela batean desfilatu zuten. Modu honetan markaren sorreraren 90. urteurrena ospatu zen. Hango soinekoek fantasiatzko ipuinak, gazteluak eta maitagarriak ekartzen zituzten gogora. Azkenik, Valentinok eskuz egindako enkaje eta bordadoekin egindako soine-



koak aurkeztu zituen Pier Paolo Piccioli eta Maria Grazia Chiuria zuzendari kreatiboen eskutik. Kolekzio honen bitartez ageriko sekretua zena aditzera eman zen: Maria Graziak agur esan dio Valentinori eta Dior maison mitikora dihoa zuzendari kreatibo bezala. Modak ez du atsedetik hartzen eta edozein momentutan 180 graduko bira eman dezake.

Facebook.com/solasdesigns
Instagram: solas-design

olatz etxeberrria -ARKITEKTOA-



Oporrak gainean ditugu. Seguru aski nonbaitera joateko asmoa izango duela batek baino gehiagok. Horrek, kultura, gizarte, paisaia eta arkitektura



Santorini (Grezia)

Arkitektura eta klima

ezberdinak ezagutzeko aukera ematen digu, aniztasun horrek aberastu ez ezik, pertsona hobeak ere egiten gaitu. Baina beste gauza batez hitz egin nahi dizuet: Zoazten tokiko eraikinetan erreparatzeko eskatu nahi dizuet, ikusiko duzue zelan arkitekturak klimarekin harreman itxia duen. Mediterraneo isuri aldean eraikinak zuriz margotzen dituzte beroari aurre egiteko. Kolore beltzek beroa gehiago hartzen dute argiek baino. Gurean, berriz, nahiago ditugu harritz jantzitako eraikinak kareaz zuriztatutako baino, horrela hezetasunari hobeto egiten baitiugu aurre. Eta zer esanik ez teiltuei buruz: Asko atsegin ditugu teiltatu lauk baina gurean euriari aurre egin behar diogu eta bi edo lau isurkiko teiltatuak behar ditugu, hegal batekin bukatuta fatxada babes dezan. Erabiltzen di-



Otsagi

ren materialak ere bertakoan izan behar dira, horrela klimari eta lekuari arinago egokitzen direlako, Galizian granittoa erabiltzen dute non nahi, gurean berriz Markinako marmol beltza edo Afrikako sabanan egurra eta lastoa. Hirigintzak ere klimari aurre egiteko trikimailuak garatu ditu, kale estuak itzala lortzeko eta tenperatura murrizteko edo estalitako plazak bertan asteroko merkatua egiteko nahiz eta euria egin. Esango didazue bueltan ze motatako arkitekturak topatu dituzue. Ongi pasa uda.

“Martina” eleberria kaleratu du egunotan Maialen Bilbao 22 urteko eibartarrak. Ikasturte honetan Madrilen egon da Maialen Zeinu Hizkuntza ikasten, eta etxetik kanpora eta bakarrik egoteak dakarren egoera berezi hori aprobetxatu du aspalditik buruan zeukan ideiari forma emateko eta bere lehen nobela idazteko. Gazteleraz idatzita dago eta utoedizioaren formula erabili du. Lehenengo 100 aleak berehala saldu dituzenez, beste 300 ale eskatu ditu Amañako gazteak.

MAIALEN BILBAO (idazlea):

“Oso ondo pasatu dut nire lehenengo liburua idazten”

- *Oso gaztea zara (22 urte) eta zure lehenengo liburua kalean dago dagoeneko. Nola egin duzu?*

Betidanik izan naiz oso ipurterrea, eta geliezintasun horrek beti zerbait egiten egotera eraman nau: margotu, idatzi... Nire buruan dauden istorioak kanporatzea gustatzen zait. Liburuaren hasiera eta amaiera argi nituen aspaldi, eta orain dela urtebete ondo egituratzen eta idazten hasi nintzen. Asko irakurtzen dut eta nobela beltza gustatzen zait, gehienbat. Nik idatzitakoa ere genero horretakoa da. Círculo Rojo editorialarekin ateratu dut eta Eibarren Yraolagoitia liburudendan, Amañako Laes paperdendan eta Legarreko Adats ileapaindegian ere eskura daiteke.

- *Zer kontatzen duzu liburuan?*

Liburuaren ardatza Martina da, Martinak buruan daukana ezagutzea, alegia. Oso pertsonaia arraroa eta iluna da. Bere familia hiltzen dute bera oso txikia denean. Orduan bere senideekin beste leku batera doa bizitzera. Lagun kazetari batek bere familian gertatutako antzerako hilketak gertatzen ari direla esaten dio. Martina istorioan sartzen da, eta berehala hasten da loturak ikusten bere familiari gertatutakoarekin. Espero ez diren gauzak gertatzen dira. Iraurri dutenei asko gustatu zaie.

- *Madrilen idatzi duzu liburua. Kasualitate izan da?*

Bizitzak berak ordenatzen dizkizu planak. Madrilerira iritsi nintzenean berehala konturatu nintzen, liburua nonbaiten idaztekoan, han izan behar zuela. Aniztasuna, niri hainbeste gustatzen zaizkidan arte eta kultur alorretan dagoen gauza mordoa... Madrilen aukerak biderkatu egiten dira, hemen ez dauden gauza asko han daude: poemak errezitatzeko tabernak, mikroteatroak edonon... Ez daukazu aspertzeko denborarik. Gainera, etxetik kanpora, ezagutzen ez duzun leku baten bakarrik zaudenean, zeure burua hobeto ezagutzen ikasten duzu. Oso urte garrantzitsua izan da.

- *Beraz, liburua idaztea esperientzia positiboa izan da zuretzat.*

Gustatu zait esperientzia, asko disfrutatu dut eta oso gustora nago emaitzarekin. “Martina” beti izango da berezia, denbora asko egon baita nire buruan. Nobela bat egiteko oso sartuta egon behar zara istorioan, denbora asko behar da eta dokumentazio lana ere hor dago. Nire helburua irakurleak entretenitzea eta gustora gelditzea da. Mundu zaila da, baina, nire ustez, egindako lana ona baldin bada, iritsi behar den lekura iritsiko da, editoreren batengana



akaso, zortea edukiz gero. Ahoz ahokoa da publizitaterik onena.

- *Ikasketek eraman zaitue Madrilerira...*

Elgoibarren arreta soziosanitarioa ikasituen. Ondoren, Euskal Herriari Zeinu Hizkuntzen modulua kendu zuten, Madrilerira joatea erabaki nuen, betidanik interesatu zaidan gaia delako. Lana banekanean hemen, asteburuetan egiten nuen lan, baina exzedentzia eskatu eta Madrilerira joan nintzen, nire lehentasuna ikastea delako.

- *Zuk espero zenuena aurkitu duzu ikasketak arloan?*

Bai, betidanik egin nahi izan dut. Gainera badauzka irteerak, gor-mutu asko eta interprete gutxi baitago. Orain goi mailako zikloa da, eta bi urte barru hortik ateratzen garenak lehenengo promozioak izango gara. Ikusi ahal izan dudanez, asko praktikatzen da eta memoria ona izatea garrantzitsua da. Hilabete batzuk eman ditut ONCEn boluntario bezala, itsuak eta aldi berean gorak diren batzuekin lanean. Egia esan, asko ikasi dut euren ondoan. Zikloan ez dugu zeinuen hizkuntza bakarrik ikasten, beste komunikazio mota batzuk ere ikasten ditugu, esaterako, *braillea* eta eskuak ikutuz egiten den komunikazioa.



- *Pin-ak*
- *Metxeroak*
- *Kamisetak*
- *Boligrafoak...*

PUBLIZITATE ARLOKO eta
ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea

☎ eta faxa: 943 70 14 97

publi.resa@euskalnet.net



Iñigo Rodriguez eta Amaia Trokaola (Enplegu Anezka-ko kideak)

“Lana beste modu batean bilatzen ikasten ari gara”

Lanpostu bat aurkitzea erronka handia da gaur egungo gazteentzako. 25-35 urte bitarteko gazteei lana bilatzen laguntzeko, bi Enplegu Anezka jarri dira martxan, lehenengo aldiz, Gipuzkoan: bata Oarsoaldean eta bestea Debabarrenan. Proiektu honen berri izateko bertan parte hartzen diharduten bi eibartarrekin egon gara Debegesako lokaletan: 28 urteko Amaia Trokaola (industri ekipoen mantenimendua eta arte grafikoetan inpresioa) eta 25 urteko Iñigo Rodriguez injeniarari kimikoarekin.

- Noiz hasi zineten eta nolako perfila daukazue bertan parte hartzen ari zareten gazteek?

Apirilean hasi ginen eta irailera arte egongo gara. Astelehene-tik ostegunera goizez etortzen gara Debegesera (Azitaingo industrialdea). 25 pertsona hasi ginen eta orain 10 inguru gelditzen gara, batzuk lana aurkitu dutelako eta beste batzuk beste zeregin batzuetan hasi direlako. Taldean, gutaz gain, ikasketa eta alor desberdinetako jendea dago: administraritza, pedagogia, elektrizitatea, psikologia, disenu grafikoa, nazioarteko komertzioa, topografia, lan arriskuen prebentzioa, turismoa, heziketa soziala.. Debegesak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Santa Maria La Real Fundazioa eta Telefonica Fundazioarekin lortutako hitzarmenari esker sortutako ekimena da.

- Zeintzuk dira programa honen helburuak eta zelako gauzak egiten dituzue?

Jende gazteari lana bilatzen laguntzea da helburu nagusia. Danetik egin dugu: hasieran helburuak eta balioak zeintzuk izango ziren ikusi genuen, logo bat egin dugu, lelo bat ere sortu dugu (“ezagutzak landu eta emaitzak zabaldu”), komunikazioa asko landu dugu... Talde handia ginenez, departamentutan banatuta hasi ginen, sail bakoitzak bere helburuak zituen. Orain, gutxiago garenez, beste sistema bat daukagu, proiektuka banatuta gaude, bakoitzak bere arduraduna dauka,

eta horrek erabakitzen du zelan egin proiektua eta zeinek egin behar duen. Talde-lana eta bata besteari laguntzea ezinbestekoa da.

- Enpresetara bisitak egitera eta zeuen burua aurkeztera jotzen zarete, ezta?

Horrelako bisitak sarritan egiten ditugu, ahaleginen gara astean bi edo hiru egiten. Bakoitzak zerrenda bat prestatu du

ezagutu nahi dituen enprekin. Deitu egiten diegu eurekin gertatzeko eta, haraino joatea lortzen badugu, gure perfila erakusten diegu, kurrikuluma lagatzen diegu... Kontua da soltatzeko eta beste modu batean bilatzea lana. Ez da gauza bera kurrikulumak bidali eta kitto, edo enpresako arduradunarekin aurrez-aurrez berba egitea. Hurrengo bakantea dagoenean gu-

rekin oroitzea da helburua. Horretarako triptiko bat. sortu dugu. Bertan bakoitzaren argazkia, bakoitzak sortutako esaldi bat eta profesionaltasun-maila eta emaila azaltzen dira.

- Zergatik da onuragarria horrelako proiektu baten sartzeari?

Gauza asko ikasten dira. Komunikazio gaitasuna asko landu dugu. Adibidez, bideoak egiten ditugu, norberaren aurkezpenarekin, eta gero zelan egin dugun aztertzen dugu. Orain errazago egiten dugu dena. Ikasi dugu gure burua aurkezten eta baita saltzen ere, eta hau oso inportantea da. Horretaz gain, Debegesaren edo Anezkaren ize-nean joatean ate asko zabaltzen zaizkizu. Ikastaroetara eta hitzaldietara ere joan gara, eta baita enplegu azoketara ere, hemen inguruan eta Madrilan. Kurrikulumak ondo lantzen eta elkarriketa batean zelako jarrera eduki behar den ikasi dugu, eta baita zer galdera mota eta galdera “tranpa” dauden, eta guk elkarriketatzaileari zer galdetu ahal diogun ere. Sare sozialetan egotea ere ezinbesteko da. Gure bisibilitatea handitzeko bi ekimen solidario antolatzen ari gara. Gurutze Gorriarekin premia ekonomikoak dituzten familiendako eskola-materiala bilduko dugu abuztuaren amaieran eta irailaren hasieran. Eta Andretxeekin egin dugu berba langabezia dauden pertsonen euren kurrikuluma hobetzen laguntzeko.



Iñigo eta Amaiarekin edo taldeko beste kideekin harremanetan jartzeko: <http://www.lanzaderasdeempleo.es/lanzaderas/debabarrena-2016> edo Lanzaderadebabarrena@gmail.com

Globoan bidaia irabazi oporretako argazkiekin

Oporretan argazkiak egin eta horiei etekina ateratzeko aukera bikaina daukatzue, **Gazte-txartelak** oporretako argazkien lehiaketa martxan ipini du eta. Igerilekuan, hondartzan, mendian, turismoa eginez... ateratako argazkiak bidalita hartu daiteke parte eta irabazleak jasoko duen saria globo aerosatikoan paseoa izango da.

Parte hartzeko Gazte-txartelaren titular izan behar da. Bidalitako lanak originalak izatea eskatzen dute eta parte-hartzaile bakoitzarentzat argazki-mugarik ez dago, nahi beste argazki bidal daiteke. Argazkiek "jpg" formatu digitalekoak izan behar dute, edozein prozedura teknikorekin egin daitezke eta edozein bitarteko erabil daiteke (kamera digitala,

telefono mugikorra edo beste batzuk). Argazkiak koloretan, zuri-beltzean, sepian eta abar egin daitezke... baina balorazio-arrazoiak direla medio argazkiak ez dira izango panoramikoak, ezta diapositibak edota serieak ere. Lehiaketara aurkeztutako lan guztiak Gazte-Aukera profilean jarriko dituzte, Flickr eta Instagram-en.

Parte hartzeko argazkiak gaztetxartela@gmail.com helbidera bidali behar dira, "FotoGT" gaiarekin eta datuak adierazita (izen-abizenak, NA-NA eta telefono-zenbakia). Nahi izanez gero, argazkiarekin edo argazkiekin batera titulu bat adierazi dezakezue eta argazki bakoitzaren deskribapen labur bat egin daiteke. Horrez gain, txioen bidez argazkiak



partekatu nahi dituenak izenburu edo azalpen laburra jarri beharko du eta, kasu guztietan, txioek bi traola edo "hashtag" eduki beharko dituzte: #fotogt eta #gaztetxartela, bai-

ta @gazteukera aipamena ere. Gainera, parte hartzaileek Twitterreko @gazteukera profilean jarraitzaileak izan beharko dute. Parte hartzeko azken eguna urriaren 16a izango da

Boluntariorantz jarduteko hamaika aukera

Lan solidario batean denbora eman duten gazteentzako eskaintza zabala dago gaur egun. Izan ere, boluntariorantz erakundeak (elkartek, fundazioak, GGKEak) askotarikoak dira, baita aritzen diren ekintza-eremuak ere: aisialdia eta denbora libre, ingurumena, babes zibila, garapenerako lankidetzak, gizarte-bazterketa eta baztertutako kolektiboak, menpekotasunak, minusbalioetasunak, giza-eskubideak edota hezkuntza eta kultura, besteak beste. Horrelako programaren batean parte hartzeko interesa izanez gero aukera ugari dago, bai inguruan, baita European eta bestelako



herrialdeetan ere. Jarraian, boluntariorantz mota aukeratzeko lagungarria izan daitekeen oinarriko informazioa:

- Nazioarteko boluntario-lana. Esperientzia aparta bizitzeko eta bidaiatzeko aukera ekarriko dizu, baina alde aurretiko antolakuntza handia eskatzen du. Amerikako, Afrikako edo Asiako herrialdeetan, hiru hilabetez egonaldia solidarioak hartzen dituen Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa kontsultatu daiteke informazio zehatzagoa izateko.
- Europako Boluntario Zerbitzuak 17-30 urteko gazteentzako boluntario-esperientzia eskaintzen du atzerrian, Europako Batzordeak diruz lagundurikoa da. Gazteek 2 hilabetetik 12 hilabetera bitarteko aldian boluntario-lanak egiteko aukera izaten dute, askotariko jarduerak alorretan: gizarte-alorra, ingurumena, kultura, kirola, artea...
- Auzolandegiak programak, ordea, iraupen laburragoa du, bi eta lau arteko astekoa. Epe honetan hainbat nazionalitateko pertsonak elkartu eta eduki sozialeko borondatezko lanak egiten dituzte.

667 54 89 16 (Ritxar) kolorlan@hotmail.com

KOLORLAN
P I N T U R A K

YOKASTA Ibarkurutze, 7
Tel. 603 344 258

Yokasta Nails Spa manikura-aretoa

MANIKURA 5€tik hasita

IRAUPEN LUZEKO manikura: 20€

zurre azazkalak zurre espresio-bidea

ORDUTEGIA: 10:00-20:00

Gurera etorritako jendearen artean, badago Galiziako Ourense probintzian herri txiki bat (ia 6.000 biztanle, dituen elizaurre guztiak hartuta) bai Eibarrera bai Ermura langile mordoak ekarri ziguna "desarrollismoko urteetan". Horrek lotura berezia sortu Allarizekin eta aurren, hiru alkateek elkarrekin hartuta, Euskadi-Galizia I. Jardunaldiak antolatzea erabaki dute. Aurreko astean egin zuten horren aurkezpena Eibarko Udalean eta Allarizeko Musika Bandak asteburua pasatu zuen gurean, kontzertuak eskainiz Untzagan eta Ermuko Cardenal Orbe plazan. Hurrengo urratsa Allarizen egingo den Euskadiren Eguna izango da, abuztuaren 13an.



Bihurri eta Mugi Pандeroa izango dira Allarizeko Euskadiko Egunean

Egitarau osoa oraindik zehazteko badago ere, hainbat ekitaldi lotzen doaz hango eta hemengo Kultura udal teknikariak. Jose Luis Gonzalez "Poxpolo" Eibarkoak esan digunez, "abuztuaren 13an egingo den egun berezirik, aurrez lotuta zeuden Ernesto Ezpeleta Bihurri aizkolariak eta Ermuko Haritz Ureta harrijasotzaileak egingo duten erakustaldiekin eta Mugi Panderoa taldearen erromeriarekin, bagaude beste gauza batzuk ere lotzen gutxinaka". Zapatu horretan ekitaldi instituzionala ere antolatuko dute eta, horregatik, "Kezka Dantza Taldekoekin eta Txistulari Banda-koekin ere hitzegiten dihardugu. Aurrez-kuza izango da programazioan". Patxi Le-



Allarizeko Musika Bandak kontzertua eskaini zuen Untzagan aurreko zapatuan.

jardi Kultura zinegotzia ere inplikatu da eta "hamar bat Lambretta" bertan izan daitezke "motor klasikoaren kontzentrazio batean". Aurrekoari Euskal Herriko labela duten hainbat produktu gastronomi-koen presentzia gehituko zaiela esan digute.

T. Etxebarrian bertan

Alarico errege godoak sorturiko herriaren hiri-barruak "bi mila biztanle inguru hartzen ditu eta oso polita da", esaten digute urtero hara doazenek. Botatoko gaztelu bateko harriak erabiliz harriztatu zituzten alde zaharreko kaleak eta kasko historiko hori oso ondo zain-

duta dago gaur egun. Zaintze horrekin lotuta, Allarizek Hirigintza eta Planifikazioaren Europako Saria jaso zuen 1994an, hildako espazio bat berreskuratzeko lanaren sari. Horren aurrekaria bost urte lehenago dugu: 1989ko udan, abuztuaren 11n hain zuzen. Aurretik ere biztanleak haserre zeuden orduko alkatearekin (PPkoa) eta herriaren alde nahikoa ez egitea aurpegiratzten zioten. Arnoia ibaia hildako arrainez esnatu zen egunean gazte batzuk udal-terera jo zuten egoera salatzerara eta, herri-tarren laguntzarekin, itxialdia hasi zuten han bertan. Itxialdi horrek hiru hilabete iraun zuen eta alkateak dimisioa eman zuen. Orduetik Allariz nazionalisten feudo handiena da Galizian: orain ere, 13 zinegotzitik, bederatzik BNG-koak dira, PPkoak hiru ditu eta bestea sozialista da.

Urtero uda aldean hemendik joandako jendearekin betetzen den herriak oraingon beste motibo bat ere ematen digu abuztuaren 12tik 14ra arte egingo diren Euskadi-Galizia Jardunaldiekin gozatzeko. Esperientzia dutenek dioten moduan, "20:00etatik 21:00etara poteatzera irten eta Toribio Etxebarrian zaudela dirudi".



Arnoia ibaiak Allarizeko ardatzetako bat da.



Jose Luis Cuerdaren "La lengua de las mariposas" pelikula Allarizen errodatu zuten osorik.

Oporretan ederto... etxetik gertu ere



Uda ailegatu bezain laster askok herritik kanpora egun batzuk emateko irrikitan egon arren, beste askok gustora asko igarotzen dituzte jai egunak etxe inguruan, bestelako planak egiten. Azken urteotan gure eskualdeko turismoa ezagutzera emateko ahalegin berezia egiten dihardute erakundeek, tartean Euskal Kostaldeko Geoparkeko arduradunek. Ez da hori, baina, Debabarrenak turismo eta aisialdirako eskaintzen duen aukera bakarra: mendialdeak, eskualdeko herrietan dagoen ondare historiko eta artistikoak, Dolmenen Ibilbideak, Debabarreneko hainbat tokitan martxan dauden museoek... horiek guztiak gure denbora librean betetzeko plan ezberdin egiteko aukera ugari eskaintzen dizkigute, baita udan ere.

Turismo kulturala, historikoa, aktiboa, gastronomikoa... bakoitzak bere jai egunak gehien gustatzen zaion plana egiteko moduko eskaintza aurki dezake Debabarrenean. Natura, abentura eta akzioa atsegin dutenek buzeoa, piraguismoa, surfa, itsas-irteerak, zaldi-irteerak, paintball-a, mendi-ibilbideak, kapeak, espeleologia... etxetik oso gertu egiteko aukera daukate. Horiei buruzko argibideekin batera, Debabarreneko mapa turistikoa, eskualdea bisitatzeko plan ezberdinak, Mutriku, Elgoibar eta Eibarko museoen inguruko informazioa... horiek guztiak debabarrenaturismo.com daude bilduta.

Urte guztian Portalean zabalik dagoen Eibarko Armagintzaren Museoa udan ere zabalduko dute, baina ordutegi berezian: uztailaren 31ra arte, martitzenetik barixakura, 16:00etatik 20:00etara (astelehen, zapatu eta domeketan itxita) eta abuztuaren 1etik 31ra, berriz, martitzenetik barixakura, 10:00etatik 13:30era (astelehen, zapatu eta domeketan eta abuztuak 16an itxita). Eta Arrateko Gerra Zibileko Eibarko Frontearen Interpretazio Zentroak, berriz, betiko martxan, domeketan 11:30etik 13:30era zabalduko ditu atek.

Euskal Kostaldeko Geoparkean udako denboraldia hasteko egindako aurkezpenen azaldu zuten, aurtien proposamen berri bi gehitu dizkiote bisita gidatuen programari: "Geoparkeko herriak", Mutriku, Deba eta Zumaiako kultur eta itsas ondarea ezagutzera emateko proposamena da. Bisita berez hiru herrietako batean egingo da eta, "horretan parte hartzen duenak itsas kulturari estu lotutako herri bat deskubrituko du, alde zaharreko eraikin eta monumentu nabarmenak bisitatuz". Bisitak 90 minutuko iraupena izango du.

Eta bigarren proposamen berrian, umeak

dauzkaten familientzat bereziki prestatu duten "Lasturko plaza" izeneko, Lasturko bailaran egingo da, Geoparkearen bihotzean: "Euskal jolas tradizionalak berreskuratu eta sustatu nahi dituen proposamen honetan umeak izango dira protagonista. Esperientziak hiru orduko iraupena izango du. Errota zaharrea artoa ehotu ondoren, talo tailerrean parte hartuko dute familiek eta, berrindartu eta gero, xarma berezia duen Lasturko plazan elkartu eta euskal jolas tradizionaletan arituko dira: txingak, sokatira, lokotx biltzea, zaku lasterketa...". Bisita hau, gainera, Lasturren bertan zabaldu berri den Geoparkearen interpretazio gunea ezagutzeko osatzeko aukera dago: "Espazio edo gune berri honen Lasturko haran ezkutua hobeto ezagutzeko aukera eskaintzen du. Baserriak, haitzuloak, ura, kareharria eta zezenak dira bertako protagonista handiak. Testu eta ilustrazioen bitartez, bisitariak bertako historia eta tradizioak, harriarekiko duen lotura estua, gordetzen dituen ezaugarri geologiko bereziak edota bertako bizimodu eta ohiturak deskubritzeko aukera izango du".




Bisita gidatu ugari

Horrez gain, jakina, orain arteko martxan, Geoparkera joaten diren bisitariak ohiko ibilbide turistikoak egin ahal izango dituzte: itsasontzian irteerak, ibilbide geologikoak eta kulturalak, barnealdeko bailarak ezagutzeko jarduerak... Geoparkeko arduradunek diotenez, "14 proposamen ezberdin, denak gida profesionalen eskutik". Nabarmenezkoa da aurtien "Flyscharen Ibilbidea" izeneko irteeraren eskaintza bikoiztu egin dela, "bisitarien eskaera nabarmen handitu baita Basquetourrek sustatzen duen



Flyscharen ibilbidea

Zumaia eta Mutriku bitarteko ibilbidea, Debatik pasatuta, itsasontziz. Txangoan zehar, flyschari zein kostaldeko herrietako ohitura eta bizimoduari buruzko azalpenak emango dituzte. 45 minutuko tarte egongo da bakoitzak bere kabuz Mutrikuko portua eta herrigune historikoa bisitatzeko. **Bisitak:** uztailak 23, 25, 27, 29 eta 30; abuztuak 1, 3, 5, 6, 8, 10, 12, 13, 15, 17, 19, 20, 22, 24, 26, 27, 29, 31 (astelehen, eguazten, barrixaku eta zapatuak).



Marearteko zabalgunea

Bisita honek biologiari erreparatzen dio batez ere eta itsasbehera oso behean dagoenean barrik egin daiteke. Aditu batek lagunduta aberastasun handiko ekosistema ezagutzeko aukera izango da: itsas izarrak, olagarroak, itsas erbiak... **Bisitak** abuztuak 20 eta 21.



Karstekozapareak

Olatzeko bailara oinez bisitatzeko irteera, paisaia karstiko bereziaren elementu nagusiak ikusteko: Goienetxe baserrira bisita, artalde bat ikusi, gaztagintza ezagutu eta gazta eta txakolina dastatuko dituzte bisitariak. **Bisitak:** uztailak 31; abuztuak 3, 7, 17 21 (martitzen, domeka).



Zumaia-Deba-Zumaia

Itsasontziz joan-etorria, Deba-Zumaia biotopo babestuan barrena. **Bisitak:** egunero (eguraldiaren menpe).

Euskadi Turismoren webgunean promozionatzen hasi denetik". Bestalde, iaz bezala, aurten ere Deban itsas irteerak egingo dira uda guztian (Debatik Zumaia eta Zumaia Debara), pantalanari esker.

Orain arteko bisita gidatuen eskaintza indartuta, ekainaz geroztik eta iraila bitartean, Geoparkeak egunero eskainiko ditu jardura interesgarriak hango ondare geologiko, natural eta kulturala ezagutzera emateko asmoz. Arduradunen berbetan, "goi-denboraldian bete-betean murgilduta, bisitarien kopuruak gora egingo duela aurreikusita, eta bisitari horiei harrera bikaina egin eta kalitatezko zerbitzua eman nahian, Geoparkeak astean 30 irteera baino gehiago eskainiko ditu, irailaren 30era arte. Udara begira, 563 bisita gidatu programatu ditugu aurten". Bisita gidatuen egutegi osoa geoparkea.com webgunean sartuta kontsultatu daiteke eta, nahi izanez gero, erreserbak egiteko aukera ere badago.

Gero eta bisitari gehiago

Paisaiaren edertasunak eta Geoparkeak gordetzen duen aberastasun geologiko, natural eta kulturalak turistentzat bereziki era-



Flysch beltza

Debako hondartzan eta itsas pasealekuan egiten den oinezko bisita, gidari espezializatu baten eskutik, Geoparkeko flysch ezezagunena, Debako flysch beltza ezagutzeko. Bisitariak itsaspeko paisaia zoragarria bistaratuko du: koralezko arrezife handiak, itsaspeko abaniko sakonak, lurrikarak eta naturaren harribitxi bereziak, hala nola Debako septariak. **Bisitak:** uztailak 27; abuztuak 3, 10, 14 eta 24.



Irteera geologikoa

Munduko gune geologiko nagusietako baten sekretuak ezagutzeko irteera, oinez eta itsasontziz. Algorri interpretazio zentroan hasiko da, gero itsaslabarrak oinez ezagutzera joan eta itsasontzian abiatuta amaitzeko. **Bisitak:** uztailak 23, 26, 28, 30; abuztuak 2, 4, 6, 9, 11, 13, 16, 18, 20, 23, 25, 27 eta 30 (martitzen, eguen eta zapatuak).



Geoparkea: 14 bisita gidatuak

kargarria bilakatu dute. Gainera UNESCOren aitortza ere badu, iaz erakunde horren Munduko Geoparke izendapena eskuratu zuen eta. Iaz 9.756 lagunek hartu zuten parte Geoparkeak eskainitako irteera gidatuetan eta, aurreko urtearekin alderatuz gero, bisita kopuruak %48 egin zuen gora. Bestalde, Geoparkea euren kontura, bisita gidatuetan parte hartu barik bisitatzeko duten bidaiariak ere badirela ez dugu ahaztu behar: iaz Zumaia, Deba eta Mutrikuko turismo bulegoetan 79.369 lagun jaso zituzten.



Nautilus, flyscheko fosilak

Mutrikun Nautilus Ikasgune Geologikoa bisitatu eta, ondoren, barkuan Saturranera joango da taldea, kostalde honetako flysch beltza ikusteko. **Bisitak:** uztailak 23, 25, 27, 29 eta 30; abuztuak 1, 3, 5, 6, 8, 10, 12, 13, 15, 17, 19, 20, 22, 24, 26, 27, 29, 31 (astelehen, eguazten, barrixaku eta zapatuak).



Algorri

Itsas irteera labur honek Geoparkeko kostaren edertasuna ezagutzeko aukera eskaintzen du, batez ere Zumaia flyscheko gune ikusgarrienak. **Bisitak:** uztailak 23, 26, 28, 30; abuztuak 2, 4, 6, 9, 11, 13, 16, 18, 20, 23, 25, 27 eta 30 (martitzen, eguen eta zapatuak).

INGURUKO JAIAK

UZTAILEAN:

22an, Magdalenak: DURANGO eta MUTRIKU.
25ean, Santixauak: ERMUA eta ETXEBARRIA.
26an, Santanak: ARRASATE eta MENDARO eta SORALUZE.
31n, Saninazioak: ANTZUOLA, AZPEITIA, ELORRIO, GARAI eta LEKEITIO.

ABUZTUAN:

1ian, Kopraixak: ITZIAR.
6xan, San Salvador jaiak: EIBARko auzoa; eta **Gala eguna:** ZUMAIAn.
10ean, Sallobenteak: ELGOIBARko eta ERMUko auzuak.
12an: Euskal Jaia ZUMAIAn.
15ean, Andramaixak: AZITAIN, ARETXABALETA, AZKOITIA, ELGETA, MALLABIA, ONDARRU, SORALUZE eta ZIORTZA.
16an, Sanrokeak: DEBA, ELGOIBARko auzoa eta MALLABIA.
20an: Koadriila eguna ZUMAIAn.
24an, Sanbartolomeak: ELGOIBAR.
31n, San Ramon Nonatoak: MALLABIA.

IRAILEAN:

1ean, Sanantolinak: LEKEITIO.



Zazpi Hondartzak

Mutriku eta Saturrarango hondartza ederraren artean dagoen flysch beltzaren labar ikusgarriak ezagutzeko bisita, itsasontziz. **Bisitak:** uztailak 23, 25, 27, 29 eta 30; abuztuak 1, 3, 5, 6, 8, 10, 12, 13, 15, 17, 19, 20, 22, 24, 26, 27, 29, 31 (astelehen, eguazten, barixaku eta zapatuak).




Deba-Zumaia itsasontzian

Deban hasi eta Zumairaino itsasontziz joateko irteera. Itzultzeko aukera bikaina eskaintzen da, gainera, Zumaia eta Deba arteko GR Talaia kostaldeko trekkinga egin nahi dutenentzat. Garraio publikoak (trenak edo autobusak) lotura onak eskaintzen ditu abiapuntura itzultzeko. **Bisitak:** uztailak 29; abuztuak 2, 4, 13, 16, 18, 20, 25 eta 27.



Lasturko plaza

Errota, taloak eta herri-jolasak, familia osoarentzat. Gazteak izango dira abentura honetako protagonistak. Lasturko errota zaharrean artoa ehotu, irinaz taloa egiten ikasi eta txistorrekin jan egingo dute. Jarraian, Lasturko plazan elkartu eta euskal jolas tradizioletan arituko dira: txingak, sokatira, lokotx biltzea, zaku lasterketa... **Bisitak:** abuztuak 28 (10:30etik 13:30era).



Zumaia-Deba itsasontzian

Zumaian hasi eta Debaraino itsasontziz joateko irteera. Itzultzeko aukera bikaina eskaintzen da, gainera, Zumaia eta Deba arteko GR Talaia kostaldeko trekkinga egin nahi dutenentzat. Garraio publikoak (trenak edo autobusak) lotura onak eskaintzen ditu abiapuntura itzultzeko. **Bisitak:** uztailak 29; abuztuak 2, 4, 13, 16, 18, 20, 25 eta 27.



Geoparkeko herriak

Bisitariak itsasoari eta itsas kulturari estu lotutako herri bat ezagutzeko dute bisita bakoitzean (Mutriku, Deba edo Zumaia), alde zaharreko eraikin eta monumentu nabarmenak bisitatu. Ibilbide kultural gomendagarria itsas tradizioa, kultura eta historia maite dutenentzat. **Bisitak:** uztailak 29; abuztuak 5, 12, 19 eta 26 (barixakuak).



Flyscheko olagarroa

Zumaian nabarmentzekorik baldin bada, olagarroa, "olagarro zoparen" protagonista. Estimaziorik handiena duen olagarroa harrapatzen dute Euskadiko Geoparkeko eremuan, flysch entzutetsuan. **Bisitak:** uztailak 23; abuztuak 6, 13, 20 eta 27 (zapatuak).

Udan jaiak ugaritzen joaten dira han eta hemen eta, horrekin batera, musika eta dantza emanaldiek herri guztietako plazak betetzen dituzte. Azken urteotan behin baino gehiagotan egokitu zaie Eibarko taldeei herritik kanpora emanaldiren bat eskaintzera joatea eta uda honetan ere horretarako aukera izan dute Kezka dantza taldekoek zein Ustekabe fanfarrekoek, besteak beste.



Gure dantzak eta musika ATZERRIAN ERAKUSTEN

Kezka dantza taldeak ekainaren 30ean hartu zuen Suitzarako bidea, uztailearen 1etik 3ra bitartean Zurichen egin zen Nazioarteko Folklore Jaialdian parte hartzeko. 28 dantzari eta bost musikari, guztira 33 lagunek osatu zuten Kezka dantza taldearen espedizioa. Suitzaraino joandako dantzariak Maitane Fariñas, Jone Saez, Miren Hazas, Leire Andikoetxea, Egoitz Blanco, Julene Usobiaga, Oier Araolaza, Ekhi Zugasti, Ainhoa Larrañaga, Nagore Fernandez, Luken Aranburu, Maider Otaola, Eider Agirrebeña, Joanes Plazaola, Oihane Llorente, Maddi Alberdi, Olatz Mandiola, Amaia Gorrotxategi, Irati Egiuren, Ander Garitagoitia, Maier Fernandez, Jone Lahidalga, Idoia Lahidalga, Naroa Arrizabala, Unai Txurruka, Esther Karea, Olaiz Agirrebeña eta Amaia

Rodriguez izan ziren eta haiei laguntzera joandako musikariak, berriz, Andoni Altzibar, Iñaki Barua, Jose Miguel Laskurain, Andoni Urbietta eta Amaia Baglietto. Dantzari eta musikariek osatutako taldeak lau emanaldi eskaini zituen barixakutik domekara Zurich-eko Lindenhof parkean ospatu zen folklore jaialdian.

Zurichetako jaialdi handia izaten da. Kezkatik azaldukoaren arabera, "hiru urtetik behin ospatzen da eta, antolatzen denean, ekitaldi erraldoia izaten da". E-

barko taldearekin batera herrialde ezberdinetatik joandako 27 taldek jardun zuten. Besteak beste, Kuba, Grezia, Eslovakia, Kroazia, Mexiko, Serbia, Polonia, Bulgaria, Egipto, Italia, Errusia, Thailandia eta Suitzako taldeak hartu zituzten Internationales Volkstanztreffen Zürich jaialdian.

Azken hamarkadetan Kezka dantza taldeak behin baino gehiagotan eskaini ditu emanaldiak atzerrian, baina Suitzara ailegatu barik zegoen oraindik. Nazioarteko emanaldiei erreparaso

egiten hasita, "1980 hamarkada hasieran Olivenzan (Extremadura) eta 90koan San Asension (Errioxa) izan ondoren, azken hamabost urteotan Sint Niklaas (Belgika), Roca Grimalda (Italia), York (Ingalaterra), Southampton (Ingalaterra), Szeged (Hungaria), Krakovia (Polonia), Torredembarra (Katalunia), Villach (Austria), Valladolid (Espainia) edo Miranda do Douro (Portugal) izan da Kezka dantza taldea Eibarko eta Euskal Herriko dantzen erakustaldiak eskaintzen".

Suitzan eskainitako emanaldiaren ardatza "ohiko dantza errepertorioa, hau da, Arrateko eta Eibarko dantzak" izan ziren. Arrateko trokeo-dantzak eta San Joan eguneko soka-dantzarekin batera, Lapurdiko kostaldeko dantzak eta Zuberoako maskaradetakoak ere erakutsi zituzten Kezkakoek, "euskal dantzen aniz-



Ustekabe txarangako partaideek ondo dakite zer den bidaiatzea eta hainbat tokitako jaietan parte hartzea. Goian, Sevillan izan zirenean. Eskumako irudian, Elgetan; eta ezkerrekoan, Zarautzen. Oraingoan Mont de Marsaneko jaietan izango dira.





Eibarko danborradako ordezkariak Zumarragako jaietan izan zen uztailaren 1ean, hango danborradakoekin jotzen.



tasunaren argazki txiki bat eza-
 gutzera emateko asmoz".

**Mont de Marsango jaietan
 izango da Ustekabe**

Azken asteotan Ustekabe fan-
 farreak eskaini dituen saioen ibil-

bideari begiratu gero, argi dago
 Eibarko txarangaren musikak ez
 duela mugarik ezagutzen. Ekai-
 nean etxean, sanjuanak eta Ur-
 kiko jaiak alaitu eta gero, musi-
 kari gazteak batetik bestera ibili
 dira geratu barik: Domezain (Zu-

beroa), Sevilla, Elgeta, Zarautz,
 Matiena, Zestoa... Eta uztailleko
 agenda ere ondo beteta dauka-
 te: Donostia, Gorliz... eta egu-
 notan Mont de Marsan-en (Fran-
 zia), La Madeleine jaietan parte
 hartzen dihardute, eguaztenaz
 geroztik domekara
 arte, bost egunez
 han izango dira eta.

Ustekabeko kide-
 ek azaldu digute-
 nez, "Mont de Mar-
 sango jaiak oso eza-
 gunak dira txaran-
 getako kideen arte-
 an, horien inguruan
 prestatzen duten
 egitarau zabala dela
 eta. Ohikoa izaten

da azken boladan nabarmendu
 den euskal txarangaren bat
 jaietan parte hartzera gonbida-
 tzea eta aurten guri egin digu-
 te gonbidapena".

Orain dela gutxi beste gonbi-
 dapen berezi batek Sevillaraino
 eraman zituen Ustekabeko mu-
 sikariak, ekaina erdialdean han
 jokatu zen Euskadi Basque
 Country traineruen banderaren
 harira antolatu zuten danborra-
 dan Zumaiaiko Telmo Deun
 arraun-taldea animatzen ibili zi-
 ren eta. Eta danborrada aipa-
 tuta, Eibarko danborradako
 ordezkariak Zumarragan egon
 ziren uztailaren 1ean, hango
 danborradako kideekin bate-
 ra jotzen.



Hilaren 1etik 3ra Kezka Dantza Taldekoek Zurich-eko Folklore Jaialdian izan ziren.

Helbidea
URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreak / 1. solairua
☎ 943 12 02 00 Fax: 943 12 02 04

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

1) Kardiologia	11) Barne Medikuntza
2) Zirugia	12) Radiologia
3) Dermatologia	13) Urologia
4) Dietetika / Nutrizioa	14) Traumatologia
5) Análisi Klinikoak	15) Koloproktologia
6) Ortodontzia	16) Erizaintza
7) Otorrinolaringologia	17) Zoru pelbikoaren errehabilitazioa
8) Pediatria	18) Foto-depilazio
9) Psikiatria	Unitatea
10) Neurologia	

Funeraria·Ehortzetxe
Mugica

EIBAR Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27	ELGOIBAR Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Bulegoa Eibarko erdialdean	
24 orduko zerbitzu iraunkorra ☎ 943 20 19 51 www.funeuskadi.com	
Euskadiko Lehen Ehortze Taldea GRUPO Funeuskadi	

Abian da I. Ojanguren lehiaketa

Indalezio Ojanguren XXIX. Argazki Lehiaketa deitu du Eibarko Udalak, Eibarko Klub Deportiboaren laguntzarekin. Parte-hartzaile bakoitzak gehienez 3 argazki zuri-beltzean eta 3 koloretan (inoiz saritu gabek) aurkez ditzake. Lanak aurkezteko zein informazioa eskatzeko Portaleko 1. solairura joan edo www.eibar.eus-en begiratu daiteke (urriaren 6ra arte).



Irailerako ikastaroak prest KZgunean

Eibarko KZguneak irailerako ikastaro eskaintza prest dauka. Portalean dagoen ikasgelan emango dituzten kursoak hauek dira: "Nabigatzen eta posta elektronikoak bidaltzen ikasi" (14 ordu teoria + 6 ordu praktika, irailaren 1etik 16ra, 16:00etatik 18:00etara); "Doako antibirusa. Zure ordenagailua babestu" (2 ordu, irailak 16an, 11:00etatik 13:00era); "Gmail: posta elektronikoa baino gehiago" (4 ordu, irailak 22-23an edo 29-30ean, 11:00etatik 13:00era); "Facebook: erabiltzaile gehien dituen sare soziala" (8 ordu, irailaren 2tik 7ra, 18:00etatik 20:00etara); "Argazki ukitua GIMP erabiliz" (10 ordu teoria + 6 ordu praktika, irailaren 12tik 21era, 18:00etatik 20:00etara), "Ofimatika tresnak" (12 ordu teoria + 8 ordu praktika, irailaren 19tik 30era, 16:00etatik 18:00etara) eta "Smartphoneak eta tabletak" (10 ordu teoria + 4 ordu praktika, irailaren 5etik 15era, 11:00etatik 13:00era).





Urruneko formazioan, bestalde, hiru hauek egiteko aukera dago: "Marka pertsonala eta LinkedIn" (2 aste, irailaren 5etik 21era), "Ofimatika orokorra" (4 aste, irailaren 5etik urriaren 5era) eta "Argazki ukitua GIMP erabiliz" (4 aste, irailaren 5etik urriaren 5era).

Ikastaro guztiak doan dira eta klaseak gaztekeraz emango dituzte. Informazio gehiagorako www.kzgunea.eus helbidean begiratu edo 943023637 telefonora deitu daiteke. Bestalde, Eibarko KZguneak Facebookeko profila (www.facebook.com/kzguneaibar) jarri du martxan orain dela gutxi eta, bertara sartu eta gustoko duzuela adierazita, albisteen berri izango duzue.

Uztaileko argazki erakusketak tabernetan

Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldearen eskutik uztailean hiru erakusketa hauek ikusteko aukera izango da: Jaume Millan-en "El bosc nu" ("Zuhaitz biluziak") Ambigú tabernan, "Fotospai" izenburukoa Klub Deportiboan eta 2016ko Rallyko lanen erakusketa, berriz, Portalea jatetxean.



Arrate bezperako KANTABRIA 21:00

IRAILAK 7
ASTEAZKENA

BERTSO-AFARIA



ANDONI EGAÑA

**SARRERAK
SALGAI**



AGIN LABURU



SEBASTIAN LIZASO

Kultu
Sagarbitza
Kantabria



MAIALEN LUJANBIO



Beheko Tokikoak Londresen

Karmen kaleko Beheko Tokiko jubilatutako ederto ibili ziren Londresen, sanjuanetan hara egindako bidaian. Ekaianaren 22an Bilbotik abiatu zen taldea eta, 26ra bitartean, Britania Handiko hiriburuko tokirik esanguratsuenak ezagutzeko tartea izan zuten: Westminster, Windsorreko gaztelua, Portobelloko azoka, Soho, Chinatown, Leicester Square, Covent Garden... eta, jakina, Tamesis ibaian zehar ontzian ibiltzeko aukerarik ez zuten galdu! Argazkian ikusten duzuen moduan, bidaira joandakoek gure herriko koloreak eraman zituzten eurekin batera: "Eibarko bandera eta zapiak alkateak oparitu zizkigun eta insigniak, berriz, guk erositakoak dira".



Merkealdietan ere Euskeraz primeran!

Eguaztenetik Toribio Etxebarria kalean martxan dagoen udako merkealdien azokan Euskeraz primeran! kanpainak bere txokoa izan du. Kanpaina horrek ostalari eta dendarien artean euskeraren erabilera handitzea du helburu, baina oraingoan, herritarren artean ere zabaldu nahi izan du gutxienez lehengo hitza euskeraz egiteko konpromisoa. Horretarako prest daudenei insignia banatzen ibili dira Factoring-ean ...eta kitto! Euskara Elkarteko ordezkariak eta, horrez gain, argazkia ere atera zaie nahi izan duten guztiei. Horien artean Eibar Merkataritza Gune Irekiak emandako 100 euroko erosketa-txartela zozketatu dute gaur eguerdian (irabazlearen berri izateko etakitto.eus webgunean begiratu dezakezue).


Liburutegiaren aplikazioak urte bi

Juan San Martin liburutegiaren "Eibar liburutegi" app-ak urte bi bete ditu eta, liburutegiko arduradunen berbetan, "gero eta gehiago erabiltzen da". Telefono eta bestelako gailu mugikorretan modu erraz eta erosoan erabiltzeko pentsatuta dagoen aplikazioak liburutegiko zerbitzuak eta informazioa eskaintzen ditu: helbidea, mapa, telefonoa, e-maila, webera sarbidea, klik bat eginda bakarrik dei bat edo korreo elektronikoa bidaltzeko aukera, ordutegia, katalogorako sarbidea, nobedadeen erakuslehoia Pinterest tresna erabiliz, blogerako sarbidea, Eibarko kultur agenda, Facebookeko orrialderako, Twitter perfilerako eta Youtubeko kanalerako sarbidea eta eLiburutegirako sarbidea, besteak beste. Android edo iOS gailuetan deskargatu daiteke eta euskeraz zein gazteleraz instalatzeko aukera dago.



Film laburren lehiaketarako lanak

Udalak eta Plano Corto kultur elkarteak antolatutako "Asier Errasti" Eibarko 17. Film Laburren Jaialdirako lanak irailaren 20ra arte aurkeztu daitezke. Lehiaketan sail bi bereiziko dituzte: fikzioa eta animazioa. Bietarako lanak DVD-an aurkeztea eskatzen dute antolatzaileek. Informazio gehiagorako www.planocorto.es eta www.eibar.eus-en begiratu.



Bitzta erdia baino gehiago eskaini dio foballari Laura Olmok. **Lauri** 13 urte zituela hasi zen Urkin jokatzeko eta orain, 31rekin, foballa lagatzea erabaki du, "ondorengoei tartea lagatzeko". Urkitik Eibar FT-ra egin zuen jauzi eta azken talde horretan agurtu du egindako ibilbidea, "tartean Elgoibarko jokalaria" izan bada ere. Oraindik ez daki zelan egingo dion aurre denboraldi berriari: "Foballaren falta larregi nabaritutako ote dudan beldur pixka bat badut".




LAURI: Agur 18 urteko jardunari

Goizez ikasten dihardu eta arratsaldez beharrean. Eguna beteta du Laurik eta foballean jardundako 18 urteei agur esatea erabaki du. Laura Olmo ez da geldirik egotekoa: "4 urtetik 13 urtera arte gimnasia erritmikoa egin nuen eta, foballa lagata ere, gimnasia joaten naiz, bizikletan ibiltzen naiz...". Badaki zer den ondo zaintzea, "gimnasia erritmikoak asko eskatzen duelako". Hala ere, txikitatik izan du foballa gustoko eta gimnasia futbitoarekin partekatzen zuen.

Urkin eman zituen lehen urratsak foballean: "Bost urte egin nituen taldean eta, gazteena izanik ere, kapitaina izatera heldu nintzen". Gero zortzi urte egin zituen Eibar FT-n. Ondoren, hiru urteko tartea izan zen, "Elgoibarko taldearekin jokatzeko eman nituenak". Berrito ere Eibarrera bueltatzeko. Hor egin ditu azken bi urteak, foballa lagatzeko erabakia hartu duen arte: "Beteranoena ere banintzen eta atzetik datozenak indartsu datozela ikusi dut". Beti jokatu izan du erditik hasi eta aurreragoko postuetan: "Punta-erdian, aurrean, alboetan... toki askotan jokatu

izan dut". Erasoan izanda, jakina, golak sartzea ez da ezohikoa izan berarentzat: "Horrelako uneetan sentitzen duzuna ez da erraza adieraztea. Egindako ekarpenaren proba izango litzateke. Azken batean, taldekide guztiek egindako lanaren emaitza da". Une onenak Eibarrekin bizi izan zituen, "Superliga jokatu genuen denboraldi bakarrean, kontutan izanda aurkarien maila handia". Hala ere, ez du ahazten Elgoibarko etapa: "Kopa irabazi genuen, hurrengo denboraldian Liga eta Kopa, eta Euskal Ligara igotzea lortu genuen. Gainera, bitan izan nintzen golea-

"Eskerrik asko nirekin izan ditudan taldekide, entrenatzaile eta klub guztiak"



tzaile nagusia". Horrez gain, Eibar FT-ko ordu-ra arte gure herriko emakumezkoen foballa hainbeste sustatu zuen Eibartarrak taldea bereganatu zuenean, Laurik sartu zuen talde berriaren historiako lehen gola "Athletic-en aurka jokaturako lagunartekoan".

Berak foballari emandakoa ordainean jaso duela dio: "Nire bitzta horren inguruan antolatatu izan dut orain arte: entrenamenduak, asteburuak... Jende asko ezagutu dut eta inorekin ez dut arazorik izan". Hala ere, bere burua ondo estutu du behin baino gehiagotan: "Partidu kaskar baten ondoren, zenbat buelta buruari!". Hori bai, partidua hasi aurreko betiko urduritasuna epailearen txistua entzutearekin batera desagertu izan zaio beti. Itxaropentsu ikusten du emakumezkoen Eibar FT-ren etorkizuna ("ondo fitxatuko dutelakoan nago eta eutsiko diote 2. mailari") eta baita, orokorrean hartuta, emakumezkoen foballarena ere ("lehen askoz zailagoa zen jokariak aurkitzea eta, gutxinaka bada ere, aurrera dihardu egiten").

Emakumezkoena telebistan ikusteko hain aukera gutxi izanik, "gizonezkoena jarraitzen dut. Griezmann dut gustoko eta pozten naiz egin duen Eurokoparengatik. Txapelketa kaskarra izan da benetan, azkenean kaskarrenetan kaskarrenak irabazteko". Laurik ez du ahazteko "partidu guztietan nirekin izan ditudan aita eta ama, Naiara, Leire, lagun guztiak, erakutsi didaten entrenatzaileak, hartu nauten klubak eta nire haserreak jasan izan dituzten inguruko guztiak".



Zelai erditik aurrerako postuetan jokatu izan du beti Laura Olmok.

Markel Alberdi Olinpiadetan izango da

Vicéns Gimenez



Basque Team taldeko igerilari eibartarrak, pika bat itxaron behar izan bazuen ere, lortu du Joko Olinpikoetarako txartela. 25 urteko igerilariak libre estiloko 100 metroko estatuko marka du eta Brasilen 4x100 erreleboko proban hartuko du parte, Erresuma Batuko taldearen bajari esker automatikoki lortutako plazari esker. Markel Alberdik argi du -askotan esan du, gainera- oso zaila izango dutela finalerara sailkatzea; baina, hala ere, laukoteak bere onena ematea espero du. Horrez gain, Eibarko igerilariaren helburuetako bat izango da, hori ziur, bere denborak hobetu eta marka egitea.



IÑAKI UGARTEBURU

Olinpiar jokoak, Rio 2016

Lau urtetik behin, urte bisurtetan, Joko Olinpikoen parada izaten dugu. Nik txiki-txikitatik asko disfrutatu izan dut olinpiadekin. Nire gazte garaian -70-80 hamarkadetara arte-, erromantikoagoak izaten ziren, kirolari "ez profesionalak" bakarrik parte hartzen baitzuten. Seuleko 1988ko jokoen ostean, ikuskizunaren eta negozioren aldeko apustua eginez, atea ireki zieten profesionalari. Bartzelona 1992an, Juan Antonio Samaranch Nazioarteko olinpiar komiteko presidentea zenean, aukera izan genuen saskibaloia eta teniseko jokalaririk onenak ikusteko, nahiz eta profesionalak izan. Datorren hilean, boxeolari, errugbilari edo golf jokalar... profesionalak parte hartuko dute lehendabiziko aldiz Rion. Erromantizismoak galdu du, ikuskizunak irabazi. Geldiezina zen. Ez litzateke batere gaizki egongo, antzinako Greziako Olinpiar jokoetan bezala, mundu mailako suetena izatea eta, sikiera, egun gutxi batzuetan, mundu osoan bakean bizitzeko aukera izatea. Zoritxarrez, uste dut larregi eskatzea izango dela. Munduko kirolari onenen artean, ohikoa den bezala, euskaldun kopuru polita izango dugu, eta baita eibartar bat ere bertan: Markel Alberdi igerilaria, sari ederra egiten ari den lanagatik. Zortetik onena Markelentzako! Disfrutatu!!!

BESTE LAU EIBARTAR OLINPIADETAN

Lehenengoa **ZIRIAKO ERRASTI foballaria** izan zen, 1928ko Ambereseko Jokoetan. Lagun Artean hasi zen jokatzeko, handik Unión Deportiva Eibarresara pasatzeko; baina Alavésen ekin zion maila handiko ibilbideari, Quincoces bere kirol bizitzako bikotearekin. Azken horrekin eta Ricardo Zamora atezain handiarekin munduko atzealde onena osatu zuen, bai Real Madrilen eta baita Espainiako selekzioarekin ere. Hamalau bider izan zen internazionala eta, gerra amaituta, Banco Guipuzcoanoan egin zuen beharra. Eibarren hil zen 1984an.

Hirurogei urte pasau bihar izan ziren Eibarren jaiotako beste atleta bat Olinpiadetan ikusi arte: 1988an, Seulgo Jokoetan, **MAITE ZUÑIGAK** 800 metroko finalean 7. postua lortu zuenean. Ez ziren izan **atleta** horren Joko bakarrak: handik lau urtera, Bartzelonan 1992an, seigarren postua eskuratu zuen 1.500 metroko distantzian; eta 1996an, Atlantantan, finalerdiara iritsi zen. 1995eko Europeoetan brontzezko domina irabazi zuen Zuñigak, gure herrixan jaiotako baten ere, Gasteizen egin du bere kirol ibilbide nagusia. Anekdotak modura, T5-ko "Supervivientes" saioa irabazi zuen.

Eskubaloiko AITOR ETXABURU izan da hirugarren

olinpiarra Eibarren. Arraten jokatzeko hasi zen pibotak Bartzelonan, Santanderreko Tekan, Granollersen eta Bidasoan egin zuen kirol ibilbidea, 2001ean erretiratu arte. Selektzioarekin 87 aldiz jokatu zuen eta brontzezko domina eskuratu zuen Atlantako olinpiadetan, Bartzelonakoetan bosgarren postuan amaitu eta gero. Domina irabazi duen Eibarko bakarra da eta, hainbat urtetan Irungo Bidasoako entrenatzaile jardun eta gero, 2010etik Iruñeko Anaitasuna zuzendu zuen gero, baita nafarrek Arratek lagatako tokia hartu zuenean Asobal Ligan. Ondoren emakumezkoen Bera Bera taldea ere entrenatu zuen, eta baita eurekin Liga irabazi ere.

ANDER ROMARATE igerilaria izan da gure azken ordezkaria, 2012ko Londresko Joko Paralimpikoetan izan zena. Hiru probatan hartu zuen parte eta, bizkar erako 100 metroko txapelketan, finalerako txartela eskuratu eta zazpigarren postuan amaitu zuen, modu horretan diploma eskuratu. Ordutik hona maila bikainean jardun badu ere, zaila du oraingoan Riora joatea, "eskakizuna handiagoa delako eta igerilari gutxiago joango direlako selekzioarekin oraingoan". Zerranda, dena dela, uztailean azken astean kalera-tuko dute.





Xuban (gerriko beltza) eta Jose Antonio Hoyos (3. dan-a) aita-semeak.

Karateko gerriko beltza Xuban Hoyosentzat

Kalamua klubeko karatekak gerriko beltza eskuratzeko azterketa gainditu zuen uztailaren 1ean Gredoseko epaimahai nazionalen. 14 urteko karateka gaztea 5 urterekin hasi zen ekialdeko kirol hori praktikatzen eta ordutik domina asko irabazi ditu parte hartu izan duen txapelketa ia gehienetan. Orain bi urte itxaron beharko du 1. dan-a eskuratzeko, baina itxaropentsu ekingo dio bideari, Jose Antonio Hoyos bere aita eta prestatzailearen laguntzaz.



Eibar Energia Hiria gero eta indartsuago errepidean

Eibarko Klub Deportiboko txirrindularitza taldea probetako lehenengoko postuetatik gero eta gertuago dabil. Horrela, Beasainen jokaturako denboraldiko egutegiko proba garrantzitsuenetakoan, Koldo Armendariz protagonistetako bat bihurtu zen, 110 kilometro irauin zuen 18 txirrindulariren ihesaldian sartu zen. Azkenean Gonzalo Serranok bereganatu zuen Beasaingo 89. edizioa eta Eibarko taldeko Victor Cordon 23. postuan helmugaratu zen.

Zailtasun askori egin behar izan dio aurre Deportiboko txirrindularitza taldeak orain errepidean egoteko eta, amateur tropelean hogeitau urte egin ondoren, Eibarko Udalaren laguntzari esker dugu lehian. Urte guzti horietan taldeak egindako harrobi lanaren fruitua da gaur egun bertatik pasatutako 10 txirrindulari profesionaletan jardutea, ahaztu barik taldekidea izan zuten Davide Martinelli italiarrak Poloniako Itzuliaren lehen etapa irabazi berri duela eta mailot horia jantzi.

Urkiola eta Ziaran sei lehenen artean Mutrikuko Sprint Triatloian

Saltoki Trikideak taldeko Aitziber Urkiola (1:17:29) eta Ane Ziaran (1:22:40) laugarrena eta seigarrena izan ziren, hurrenez hurren, zapatu arratsaldean jokaturako Mutrikuko 4. Sprint Triatloian. Ibilbidea osatzeko igerian 750 metro, bizikleta gainean 18,6 kilometro eta antxixiketan beste 5 kilometro egin behar ziren. Proba Estefania Gomez kantabriarrak irabazi zuen emakumezkoetan. Gizonezkoetan, berriz, Ander Okamika bermeotarra izan zen onena, Mikel Ugarte eta Xabier Tijeroren aurretik. Taldekako sailkapenean, Arabatri talde gasteiztarra nagusitu zen emakumezkoetan eta Zarauzko Triatloi Taldea gizonezkoetan.

UD Logroñes, Eibar FT-rekin hitzartutako taldea hiru urterako

Eibar FT-k hiru urterako hitzarmena sinatu du 2. B mailan jokatzeko duen Errioxako taldearekin eta denboraldi bakoitzean bost jokalaririk lagoko dizkio "maila horretan jokalaririk egiten joan daitezela". Iaztik CD Vitoria da Eibarko taldearen filiala, baina 3. mailan jokatzeko duen Gasteizko taldearekin Eibarrek edozein jokalaririk edozein momentutan lehen taldera igo dezakeen moduan, "hitzartutako taldea izanik, UD Logroñes-etik bakarrik neguko merkatuan" hartzeko aukera izango du. Eguaztenean egin zen sinadura ekitaldian Juanjo Guerreros UD Logroñeseko presidenteordea eta Amaia Gorostiza Eibarko Presidentea izan ziren, Fran Garagarza eibartarren zuzendari teknikoarekin batera.

ESG-k hartu du Raketxeren lekukoa foball-7 txapelketan

Raketxe Crew iazko talde txapeladuna nagusitasun gehien erakutsi duen taldea izan da bailarako XIX. foball-7 txapelketako torneoan eta, horri jarraituz, Vater de Munich-i 6-1 irabazi zion martitzenean jokaturako 3. eta 4. postuak erabakitzeako partiduan. Finalean, bestalde, ESG-k ondo erakutsi zuen zergatik izan zen finalerdietan Raketxeri irabazteko gauza (defentsa bikainarekin errenta ateratzen zion lortutako gol bakarrari) eta finalean 8-3 nagusitu zitzaion Más que Olasori. Guztira, 18 taldek hartu dute parte maiztaren 30ean hasi zen torneoko 19. edizio honetan.



**San Andres
Gozotegia**

- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Radio Eibar

C A D E N A

SER


104,0 FM



LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29




Santana jaiak MENDARON


Gaur hasiko dira Mendaroko Santa Ana jaiak, txupinazoa 19:30ean udaletxeko balkoitik botata. Jaien hasieran Katasorginaren jaietsiera egingo dute, Kalean txarangak alaituta eta ondoren kalejira hasiko da, txaranga eta buruhandiekin. 20:00etan, berriz, 2015. urtean mundura etorri diren mendarotar txikiei Santanetara ongi-etorria emateko ekitaldia hasiko da eta 23:30ean, berriz, "Gala Gaua" dantzaldia, Lisker taldearekin. DJ Xabiren diskotekarekin agurtuko dute eguna. **Bihar** Koadrilen Eguna ospatzeko goitiberen txapelketa (Azpilgoetako elizatik), Bizi Poza txarangak alaitua, paella lehiaketa eta herri bazkaria antolatuta dituzte. Domekarako egun osorako egitaraua prestatu dute, "Zahartzarolari omen eta haurren eguna" dela eta. Hilak 25ean Santixao Eguna eta 26an Santana Eguna ospatuta agurtuko dituzte aurtengo jaiak.

Santixauak ERMUAN

Gaurtik hasiko dira Ermuko Santixauak ospatzen Ermuan: 18:00etan Orbe Kardenalaren plazako pilotalekuan, paleta txapelketaren finalak jokatu dituzte eta ordu berean, baina kiroldegian, areto-foball txapelketa jokatu da. Gauean, 22:30ean play-back lehiaketa hasiko da Orbe Kardenalaren plazan, Txarangen batzordeak antolatuta. **Bihar** egun osoan egongo da zer egin: 09:00etan kiroldegian, egun osoan zehar luzatuko den areto-foball txapelketaren azken fasea hasiko da. Arratsaldean, besteak beste, "Santixauak 2016 saria" jokatu da San Pelaio Bolatokian eta Orbe Kardenalaren plazan, berriz, XIV. Mus Txapelketa. 19:00etan dantza emanaldia hartuko du Orbe Kardenalaren plazak, Txindurri taldearen eskutik. Eta gauean, 23:30ean, Esne beltza taldearen kontzertua hartuko du San Pelaio plazak. Eta **domeka** arratsaldean bete-betean sartuko dira jaietan: 19:00etan Orbe Kardenalaren plazan txarangen aurkezpena egingo dute eta, jarraian, kalejira Irulitxa eta "Los villanos del ruido" musika bandek eta Brincadeira batukada taldeak alaituta. 23:00etan, San Pelaio plazan, Beti Txarto taldeak antolatutako rock jaialdia hasiko da Wormed, Bloody Brotherhood eta Ankar taldeekin eta ordu berean Nueva Alaska orkestrarekin dantzaldia, Orbe Kardenalaren plazan.



eguraldia (EUSKALMET.NET)



hildakoak

- Francisco Alberdi Arakistain. 95 urte. 2016-VII-14.
- Iñaki Agirregoitia Bernardez. 86 urte. 2016-VII-15.
- Valentin Akarregi Barata. 86 urte. 2016-VII-16.
- America Blanco Laso. 44 urte. 2016-VII-16.
- Begoña Zaldibar Oianguren. 90 urte. 2016-VII-16.
- Ramona Goenaga Iturburu. 86 urte. 2016-VII-17.
- Rosarito Franco Albizuri. 95 urte. 2016-VII-18.
- Benito Rodriguez Limia. 94 urte. 2016-VII-18.
- Vicente Garate Gandiaga. 93 urte. 2016-VII-19.
- Carmen Berroya Etxaniz. 103 urte. 2016-VII-19.

jaiotakoak

- Ander Iturbe Angiano. 2016-VII-4.
- Nile Alberdi Minondo. 2016-VII-12.
- Andres Arzuaga Petuchova. 2016-VII-16.

SUDOKUA

1	6	3						
4			9					
		9		3	4			
3	9	1						
		7	2		8	5		
						4	1	6
			4	7		9		
					2			1
						8	7	5

6	1	7	4	8	9	2	3	5
3	8	5	1	7	2	9	4	6
2	4	9	3	5	6	7	1	8
1	7	2	9	4	8	5	6	3
8	9	6	2	3	5	4	7	1
4	5	3	6	1	7	8	9	2
9	3	1	8	2	4	6	5	7
7	6	8	5	9	3	1	2	4
5	2	4	7	6	1	3	8	9

AURREKOAREN EMAITZA

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus943 00 01 17
- Pesa.....902 10 12 10
- Txiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

UDAKO ORDUTEGIAK

PEGORA

010 / 943 708 400 pegora@eibar.eus

– Astelehenetik barixakura: 08:30-13:30
(telefonoz, 08:00-14:00)

PORTALEA

943 708 439 kultura@eibar.eus

– Uztailean, astelehenetik barixakura: 09:00-20:30
– Abuztuan, astelehenetik barixakura: 09:00-13:30

LIBURUTEGIXA

943 708 437 liburutegia@eibar.eus

– Uztailean, astelehenetik barixakura:
09:00-13:30 eta 16:30-19:30
– Abuztuan, astelehenetik barixakura: 09:00-13:30
(hilaren 8tik 19ra, gela polibalentea bakarrik)

MUSEUA

943 708 446 museoa@eibar.eus

– Uztailean, martitzenetik barixakura: 16:00-20:00
– Abuztuan, martitzenetik barixakura: 10:00-13:30

IPURUA KIROLDEGIA

– Abuztuan, astelehenetik zapatua:
09:00-13:00 eta 16:00-20:00
– Domeka eta jaiegunetan: 09:00-13:00
– Abuztuaren 8tik 21era, egun biak barne, itxita
– Kanpoko igerilekua: 10:30-20:00 (irailaren 11ra arte)

UNBE KIROLGUNEA

– Uztailean 24tik abuztuaren 7ra, egun biak barne, itxita
– Abuztuaren 8tik 31ra, astelehenetik zapatua: 10:00-20:00
– Domeka eta jaiegunetan: 09:00-14:00

ORBEA KIROLDEGIA

– Uztailean 27tik 31ra, egun biak barne, igerilekua itxita egongo da
– Uztailean 25ean eta 26an, kiroldegia itxita
– Abuztuan, astelehenetik barixakura:
09:00-13:00 eta 16:00-19:00
– Zapatuetan: 09:00-13:00
– Domeka eta jaiegunetan, itxita

ORBEA SPA

– Uztailean 26tik abuztuaren 28ra, egun biak barne, itxita

Elgoibarko Mintxeta erabiltzeko aukera

– Abuztu guztian zehar, Udal Kirol Patronatoko bazkideek Elgoibarko igerilekua erabili ahal izango dute, aurretik Ipuruako kanpoko igerilekuan pase bat jasota

KANPORA DOAZENENDAKO

UDALZAINGOAREN AHOLKUAK

Urtero legez, oporraldia heltzen denean eta gure ohiko bizilekutik alde egiten dugunean, kontuan hartu beharreko aholku batzuk gogoratu nahi digute Udaltzaingotik:

- **Uraren eta gasaren giltza itxi**
- Ez laga ez bitxirik ezta balioko bestelako gauzarik
- **Kontakturako telefono zenbaki bat laga** familiako edo konfidantzazko auzokoren bati, baita buzoiko giltza ere, **korrespondentzia jasotzeko**
- **Ateak eta leihoak** ondo itxita daudela begiratu. Dena dela, ez da komeni pertsianak guztiz jaistea, horrek etxea hutsik dagoela jakitera ematen du-eta



farmaziak

Barixakua 22

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

Zapatua 23

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

Domeka 24

EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)

Astelehena 25

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

Martitzena 26

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

Eguaztena 27

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

Eguena 28

EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)

Barixakua 29

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

Zapatua 30

EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)

Domeka 31

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

ABUZTUA

Astelehena 1

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

Martitzena 2

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

Eguaztena 3

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

Eguena 4

EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)

Barixakua 5

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

Zapatua 6

EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)

Domeka 7

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

Astelehena 8

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

Martitzena 9

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

Eguaztena 10

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

Eguena 11

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

Barixakua 12

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

Zapatua 13

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

Domeka 14

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

Astelehena 15

EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)

Martitzena 16

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

Eguaztena 17

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

Eguena 18

EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)

Barixakua 19

EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)

Zapatua 20

EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)

Domeka 21

EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)

Astelehena 22

EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)

Martitzena 23

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

Eguaztena 24

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

Eguena 25

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

Barixakua 26

EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)

Zapatua 27

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

Domeka 28

EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)

Astelehena 29

EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)

Martitzena 30

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

Eguaztena 31

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

IRAILA

Eguena 1

EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)

Barixakua 2

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

Zapatua 3

EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)

Domeka 4

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

Astelehena 5

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

Martitzena 6

EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)


GAUEZ BETI - 2016AN-
Iraundegi (Calbeton, 19)

Aurten ere, Udaltzaingoak herritarrak gonbidatzen ditu oporretan egongo diren tokietako **helbidea komunikatzera**, horrela etxeetan edo komertzioetan gertatu daitekeen edozein gorabehera dela-eta abisatzeko modua izateko. Herrian geratzen direnei, bestalde, zeozer arraroa nabaritzuz gero **092** zenbakira deitzeko eskatzen diete.

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, KOLDO, hillaren 27xan zure lehen urtia beteko dozu-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Ikerren partez.



Zorionak, AMETS, gaur 10 urte egiten dozuz-eta. Jarraitu holakua izaten. Asko maite zaittugu. Famelixaren partez.




Zorionak, MANEX, martitzenian hiru urte beteko dozuz-eta. Ondo pasatuko dogu! Patxo bat famelixa eta, batez be, Intzaren partez.



Zorionak, ALAZNE, gure poxpoliñak sei urte beteko ditte-eta Hillaren 30ian. Musu bat famelixa eta, batez be, Markelen partez.



Zorionak, AITANA, pretziotzi, hurrengo eguaztenian zortzi urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, AMETS!, haraiñegun bi urtetxo bete zenduaz-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Manexen partez.



Zorionak, MARKEL, domekan bi urtetxo beteko dozuzelako. Musu haundi bat famelixakuen partez.



Zorionak, EUKENE, abuztuaren 19xan zazpi urte beteko dozuzelako. Etzeko guztien partez.



Zorionak, DANIELA, bixar hiru urte beteko dozuz-eta. Asko maite zaittuen famelixa guztiaren partez.



Zorionak, OIHAN, zure lehen urtebetetzian. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, MALEN, gaur 11 urte egiten dozuz-eta. Musu haundi bat Aneren eta famelixaren partez.



Zorionak, UXUE, haraiñegun 11 urte bete zenduaz-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, ANE eta SARE, abuztuaren 5ian 11 eta 5 urte beteko dozuz-eta. Laztan potolo bat etxekuen partez.



Ongi-etorri, SAIOA, hillaren 1etik gure artian zagoz-eta. Zorionak, IZARO, eta ondo-ondo zaindu ahiztia. Jana eta Ixone zuen lehengusiñatxuen partetik.



Zorionak, HIRUKOTE, uztaillaren 29xan eta 31n eta abuztuaren 12xan urtiak beteko dozuz-eta. Musutxuak amaren partez.



Zorionak, ELAIA alai, 6 urte ia! Gozatu gaur arratsaldian!



Zorionak, MIREN, gaur bost urte betetzen dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixa eta, batez be, Amaiaren partez.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

23an: 19:45, 22:30

24an: 20:00

25ean: 20:30

"Premonición"

Zuzendaria: Afonso Poyart



(2 ARETOAN)

23an: 19:45, 22:30

24an: 20:00

25ean: 20:30

"Money Monster"

Zuzendaria: Jodie Foster



(ANTZOKIAN)

23an: 19:45, 22:30

24an: 20:00

25ean: 20:30

"La leyenda de Tarzan"

Zuzendaria: David Yates



Zorionak, HARITZ! Sei urte, mutil haundi. Patxo haundi bat etxekuen partez, txapeldun!

i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK** honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai Urkizu inguruan. 3 logela, jangela-egongela, sukaldea eta 2 komun. Trastelekua eta garajea. Igogailua. Eraikin berria eta eguzkitsua. Tel. 667-376212.

1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Merke. Tel. 631-649850.
 – Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 660-047305.
 – Pisua alokagai Ermuan, Iparragirre kalean. Berriztuta. Tel. 615-706548.
 – Pisua behar da alokairuan. 500 eurotik behera ordaintzeko prest. Tel. 628-235319.
 – Pisua alokagai Jardinetan kalean. 3 logela eta terraza handia. Kafetakia eta igogailuarekin. 480 euro + komunitate gastuak. Tel. 669-682148. Asier.
 – Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren edo inguruan. Merke. Tel. 602-120839.
 – Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren, 450/500 euro bitartean. Tel. 632-569245.
 – Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 631-330218.
 – Pisua hartuko nuke alokairuan. Lan-kontratua dut. Tel. 666-060799 eta 666-988946. Naiara.

1.3. Konpartitzeko

– Neska euskalduna pisukidea bila dabil Eibarren, konpartitzeko. Tel. 622-727777.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Lokala salgai edo alokagai jubilazioagatik. Estetika zentro moduan prest. Tel. 665-344815 eta 943-702854.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Ordutegi zabala. Tel. 675-207301.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukaldean laguntzeko. Tel. 612-425097.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko. Tel. 618-218355.
 – Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko, eta baita baserrian edo mendian lan egiteko ere. Tel. 696-592539.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-123942.
 – Neska eskaintzen da kamarera jarduteko, nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 665-426055.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 662-012834.

– Emakumea eskaintzen da modista jardun eta konfekzio lanak egiteko. Tel. 632-569245.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 695-180539.
 – Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordutegi zabala. Tel. 616-457254.
 – Emakumea eskaintzen da interna moduan lan egiteko. Tel. 631-064707.
 – Emakumea eskaintzen da kamarera jarduteko eta garbiketara lanak egiteko. Tel. 600-218753.
 – Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 631-990581.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 643-308608.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. Tel. 603-505042. Mariela.
 – Mutila eskaintzen da edozein lanerako: nagusiak zaindu, tabernari jardun, frutadendan... Orduka eta baita gauzez ere. Tel. 612-481470.
 – Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 678-112785.
 – Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-418130.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-911709.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 631-986771.
 – Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 680-526228.
 – Neska euskalduna eskaintzen da udan umeak zaintzeko. Baita gauzez ere. Tel. 647-615265.
 – Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 648-039187.
 – Neska eskaintzen da umeak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 602-057185.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. Tel. 610-934835. Odali Fernanda.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna. Tel. 602-123860.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Orduka. Tel. 673-538021.
 – Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baserrietan lan egiteko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 632-932444.
 – Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baserrietan lan egiteko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 632-131800.
 – Neska eskaintzen da pegorak edo tabernak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 631-790555.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 603-743240.
 – Emakumea eskaintzen da garbiketara lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 631-562380.
 – Administrazio-ikasketak eta lan esperientzia duen neska eskaintzen da alor horietan lan egiteko. Baita umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko ere. Tel. 632-480108.
 – Neska eskaintzen da nagusiak (baita ospitalean ere) edo umeak zaintzeko. Tel. 688-959575.

– Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-400915.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Goizez edo gauzez. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 655-677035.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko. Orduka. Tel. 626-197217.
 – Emakumea eskaintzen da arratsaldean eta gauzez nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak eta esperientzia. Tel. 602-141712.
 – Neska eskaintzen da goizez garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko (baita gauzez ere). Orduka. Tel. 628-014327.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 608-037575.
 – Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 632-796239.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Gidatzeko baimenarekin. Prestasun osoa. Tel. 631-343232.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 634-748531.
 – Mutila eskaintzen da arotz edo margolari moduan eta etxeko lanak egiteko. Tel. 609-154358.
 – Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Berehala hasteko moduan. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 631-699668.

4.2. Langile bila

– Pertsona euskalduna behar da haur txikia zaintzeko, bi ordu goizez eta beste bi arratsaldean. Tel. 607-926886.
 – Euskalduna behar da goizero hiru orduz umeak eskolara eraman eta etxeko lanetarako. Tel. 662-069109.
 – Illeapaintzaile profesionala behar da Eibarren. Tel. 619-928881.
 – Kamarera behar da Eibarren. Tel. 665-308025 eta 674-543564.
 – Psikomotrizitate edo fisioterapia ezagutzak dituen pertsona behar da ume batekin lan egiteko. Tel. 615737483. idatzihona@gmail.com
 – Esperientziadun pertsona behar da bidaiaria agentzia batean lan egiteko. Bidali curriculum-a: admin@viatgespoblenou.com

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Bigarren eskuko, DBH 3. mailako libururak saltzen ditut. DBH 4. mailako libururak erosiko nituzke. Tel. 653-705096.
 – HDMI DVD MP64 bat saltzen dut, DUB-T COMBOarekin. Berria. 12 euro. Tel. 943-120030.
 – Binilozko LP-ak eta diskoak erosten ditut. Tel. 688-624326.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Audifonoa galdu nuen ekainaren 21ean edo 22an. Norbaitek topatzen badu, Udaltzaingoa laga edo deitu. Tel. 943-701614 eta 656-758793.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18
 publizitatea@etakitto.eu

Logopedak

AHOTS-LAN
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA



Isasi, 17 - 1. esk.
943 202691
ahotslan@gmail.com

Diagnostikoa eta tratamendua

Degluzio atipikoa
Disfonia
Ikaste-arazoak

Arreta arazoak
Berba arazoak
Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

Berba
logopedia

AIDA CORTA ANTÓN

SAN AGUSTIN, 2-4 (B. ONA)
Mobila: 622-629-544
logopeda@berba.es

Ebaluazioa eta tratamendua:

- Hizkuntza
- Mintzaira
- Ahotsa
- Dislexiak
- Entzumena
- Degluzio atipikoa

Okulistak

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuaretea
943 20 19 82



Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmología Clínica

Presbiziaren kirurgia.

R.P.S. 234/13



Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia



T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208

BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746


PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



PODOLOGOA

Maidier Lopez Etxebarria



Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

PODOLOGO
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41



Psikologoak

AMETS
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa
www.centroamets.com

Coro Ortíz de Urbina
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua)

- Masterra Praktika Klinikoan
- Master P.N.L.
- Trainer

Tel. 675 70 68 07

Maialen Hernandez
PSIKOPEDAGOGOA

- Lengoia trastornoak
- Gizarteratze arazoak
- Autoestima arazoak
- Hiperaktibitatea
- Autoestima arazoak
- Dislexia

Tel. 605 75 75 06

Arantza Alvarez
Psikologoa-Sexologoa
1517 - GZ Kol. zkia.

www.centrodesexologia.com
Tfnoa. 645 73 23 88

KONTSULTAK: Eibar / Durango / Donostia



AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

..... (Ume eta helduendako)

Ana Artamendi

- Afasiak
- Disfoniak
- Dislexiak
- Dislaliak
- Degluzio atipikoa
- Hizmoteltasuna
- Eskola arazoak

T. Etxebarria, 10 - 6. esk. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com



Lorena Izaguirre Garcia
PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA

Errebal, 15 - 1. esk. EIBAR
Zuberoa, 4 ZARAUTZ
Tel. 943 831 618



Psikologia klinika eta Psikoterapia zentroa

Oscar Mondragon Lili
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
Urkizu, 13 - behea
Tel. 943206823 eta 686859023





Asko dira gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko
arreta jaso dezazun



www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN



Bista Eder, 19 - Bajo
20600 **Eibar**

Tel: **943 70 00 82**

mail: bistaeder@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN



José de Artetxe, 5
20730 **Azpeitia**

Tel: **943 02 59 55**

mail: innovaazpeitia@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com